



ARGIA

ETako bi kide
trebakuntza
militarra jasotzen
Bidarrai pareko
trenbidean.

**“ETako emakumeek
hitz egiten dutenean
gudariaren mitoa
apurtzen da”**

ZURIÑE RODRIGUEZ
KAZETARIA ETA IKERTZAILEA

» **HIZKUNTZA-EREDUAK** ETA SEGREGAZIOA IKASTETXEETAN

» **AUTOGINEKOLOGIA:** HILEKOA ETA BIZIMODUA UZTARTZEKO PRAKTIKAK

» **AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA:** EUSKARA IBILGAILU, JENDARTEA ERALDATZEA HELBURU



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Oaxakatarrak ekonomia berdeak bortizkeria iraunkorra eraman die
- IRITZIAK**
- 17 Balaren Bakaikoa
- 18 Nora Barroso
- 19 Iñaki Murua
Miren Artetxe
- 20 Katixa Dolhare-Zaldunbide



Herritarrek parke eolikoaren aurka borrokan ari dira Oaxakan, hitzemandako aberastasunaren orde, beren lur eta itsasoak hondatzen ari direla ikusita.

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIAKO AZOKA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGIA-KONTRA:
LETICIA DOLERA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: "ETA. HISTORIA IRUDIETAN 1951-1978" (TXALAPARTA)

SAKONEAN

- 12 | Zuriñe Rodríguez: "Mugimendu feministak bake prozesuan parte hartu behar du" / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | A, B, D ereduak ikastetxean segregazioa elikatzen / Miel A. Elustondo
- 27 | Hilekoari beha: Bizitza ez baita lineala, biribila baizik / Ane Labaka Mayo
- 30 | Aiaraldea Ekintzen Faktoria bizitza egitera doa / Maddi Txintxurreta Agirregabiria
- 34 | Ricardo Hernández Jiménez, Gaz Kaló ijitoen elkarteko koordinatzailea / Eider Madina
- 42 | Maria Arnal: "Diskurtso baten bidez azaldu ezin dena komunikatzeko balio du musikak" / Lander Arretxea
- 45 | Artxiboetatik abiatutako filmak 2018ko Berlingalen / Lur Olaizola

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



No callarem

"Isiltzen denak, zorionik ez du" esan genuen ARGIAN Mozal Legearen aurkako auzia irabazi genuenean. Ordutik adierazpen askatasunaren aurkako gurutzada azkartu baino ez da egin. Mozal Legearen isunak dozenaka milaka dira, Alfredo Ramirez txiolaria espetxean da, La Insurgencia, Valtonic eta Pablo Hasel rap kantariak kartzelara bidean, La Haineko kazetari Boro, Altsasuko gazteak eta Kataluniako independentistak –deserrian ala espetxean ez daudenak– Auzitegi Nazionalen... Zigor "eredugarri" batzuen bitartez, disidentzia politikoa azpiratzeko ofentsiba betean sartuta dago Espainiako Estatua, Europako alderdi ustelenaren gidaritzapean. Irudian: IRA hip-hop taldea, *No Callarem* kolektiboaren *Borboiak lapurrak dira* adierazpen askatasunaren aldeko abesti autoinkulpatorioaren Madrilgo aurkezpenean.

Argazkia: Alvaro Minguito · Testua: Axier Lopez



Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkinen kontrako epaiketa hasi da, Gipuzkoako erakundeetan ardurak zituztenean Zubietako erraustegi proiektua gelditzeagatik.

t “Beti izan dugu argi elite ekonomikoen mesedetan ez genuela gobernatuko eta hori egin genuen. Egindakoaz harro, ozen esango dugu ‘berriro berdin egingo genuke’”

@ainhoa_GHK

t “Mariscal de Gante PPko Justizia ministro ohia buru duen auzitegi baten esku jartzea zirku erromatarretan lehoietara kristau babesgabeak botatzen zituztenean bezala da. Eta eraman dituztenek badakite”

@petxarroman

t “Instituzioetatik ere eraldaketa sustatzea posible dela frogatu zutelako daramatzate Madrilera. Pertsonen bizitza oligarkiaren interesen gainetik jarri zutelako”

@AitorServier



EKINKLIK

50.000 lagun justizia eske Iruñean

Xabier Letona / Maddi Txintxurreta

@xletona / @mtxintxurreta

Iruñean oso aspaldi egin den manifestaziorik handiena egin zen apirilaren 14an Altsasukoekin elkartasunez, eta askoren ustez Iruñean izan den handiena. Udaltzaingoaren arabera 38.000 pertsona izan ziren bertan eta antolatzaileen esanetan 50.000. “Altsasukoak askatu” izan zen hasierako oihu nagusia eta manifestazioaren amaiera arte gehien entzun zena. Altsasukoak Aske plataformakoek hartu zuten hitza ekitaldiaren amaieran eta gogorarazi zuten Adur Ramirez de Alda, Jokin Unamuno eta Oihan Arnanzek 517 egun daramatzatela preso auzi honengatik, eta hori sekulako desproporzioa dela.

Liskarra, terrorismo bilakatuta

Apirilaren 16an ekin diote Altsasuko zortzi gazte auziperatuen epaiketari. Kasua

2016ko urrian hasi zen, Altsasuko jaietan. Goizaldeko bostak aldera liskarra sortu zen Koxka tabernan, herriko gazte batzuen eta lanorduz kanpo tabernan zeuden guardia zibilen eta euren bikotekideen artean. Liskarraren ondorioz, eta guardia zibilek zauri arinak izan zituztela eta, “terrorismo delituak” egotzi dizkiete herriko zortzi gazteri: Jokin Unamuno, Oihan Arnanz, Adur Ramirez de Alda, Iñaki Abad, Julen Goikoetxea, Jon Ander Cob, Aratz Urrizola eta Ainara Urkijo. Fiskalak 50na urteko espetxe zigorra eskatzen die seiri, 62 urte eta erdikoa Arnanzi, eta 12 urtekoa Urkijori. Orotara, 375 urte auziperatu guztientzat.

Concepción Espejel epaileak eramango du ahozko auzia Madrilera eta hilaren 27 arte luzatuko dela aurreikusten da. Defentsak Espejel auzitik baztertzeko eskatu zuen, Guardia Zibil batekin ezkondu baitago eta horrek “inpartzialtasuna” kentzen diola argudiatuta, baina ez da aldaketarik onartu.

“Helburua beteta!”

DONALD TRUMP, AEB-ETAKO PRESIDENTEA

AEBek, Erresuma Batuak eta Frantziak, airez eta itsasoz, 105 misil jaurti zituzten Damasko eta Homsera, apirilaren 14an. “Bikain gauzaturiko eraso, bart gauekoa. Eskerrik asko Frantzia eta Erresuma Batuari euren jakituriagatik eta botere militarragatik. Emaizta ezin hobea lortu dugu. Helburua beteta!”, adierazi du Trumpek Twitter bidez. Al-Assadaren Gobernuari leporatu diote arma kimikoak erabiltzea eta hortik Siriaren kontrako misil jaurtiketa. Benetan eraso kimiko-rik izan zenik, ordea, ez da frogatu, eta Damaskok eta Moskuk behin eta berriz ukatu dute arma kimikoen erabilera. **TWITTER (2018-04-14)**



FAUNA PUBLIKOA

***"Informazio sorta bat jaso
ahal izan dugu argazki,
bideo, lekuko testigantza
eta sare sozialen bidez"***

**Jean-Yves Le Drian Frantziako Atzerri ministroa,
Siria bonbardatzea justifikatzen duten frogaz (TF1)**

Gerrari komeni zaion egia



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Disimulatzeko lanik ere ez dute hartzen jada. Gogoratzen Irakeko inbasioa zurrizko "frogak"? Collin Powell jeneral estatubatuarra Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluan Photoshopez sortutako irudi batzuk erakusten, Saddam Husseinen suntsipen handiko armak, munduarentzat mehatxu. Dena gezurra. Neurri handi batean gerra hark eraldatu zuen Siriako azken urteetako odolustea. Hamabost urte eta gero hau: apirilaren 14an AEBek, Frantziak eta Erresuma Batuak misilka ekin diote Siriaren kontra, astebete lehenago ustez Assaden indarrek egindako eraso kimiko bati erantzunez.

Baina Assaden erantzukizuna izan da eraso hori? Zer frogak daude horretarako? "Informazio sorta bat", "argazkiak", "bideoak", "sare sozialak": Frantziako Atzerri ministroari falta izan zaio esatea Whatsappez abisua jaso ondoren sakatu duela botoi gorria. Le Drian da, Le Drian bera, duela bi aste eskas sare sozialetan hedatzen den "gorrotoaren" kontra hitz egin zuena, orain informazio iturri hori baliatzen bonbak jaurtitzen hasteko -gorrotorik gabe, hori bai-.

Zerbait aldatu da gerra inperialaren logikan 2003tik 2018ra, eta ez da onerako izan: misilak disparatzeko eskumena daukan txotxongiloak orain ez du premia handirik sentitzen iritziz publikoaren aurrean operazio militarra justifikatzeko. Gezurretan ari dira, badakite; denok dakigu. Baina horrek aspaldi utzi zion problema izateari, erabaki politikoak ez baitira hartzen gertatu den horretan oinarrituta, gertatzea komeni denaren gainean baizik. Eta beraz, esplikazio lauso batzuk aski dira. Aurrera, segi dezala suntsipenak, heriotzak, masakreak. Gerra baita bakea: Orwellen nobelan ikasi guenen. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**




BITARTEAN, ESPAINIAKO AUZITEGI GORENEAN...



ADUR

ANALISIA



‘De Miguel’ auzia: kopiatzeko lezioak Euskal Herritik



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: ELDIARIORORTE.ES

Cristina Cifuentes Madrilgo Autonomia Er-kidegoko presidentearen curriculumak bereganatu du medioen atentzioa, nola Espainiako Estatuan hala Hego Euskal Herrian. Baina ez dugu iberiar mesetara joan behar administrazio publikoa zipriztintzen duten sinadura faltsuak eta azken orduan “fabrikatutako” dokumentuak aurkitzeko. Ebroren alde honetan, egunotan ikusi dugu hori De Miguel auziaren epaiketari.

Fokua Cifuentes aferan jarrita dugun bitartean, Euskal Herrian inoiz epaitu den ustelkeria kasu handienaren saioak aurre-ra doaz Arabako Justizia Jauregian. Joan den astean, Alfredo De Miguelek sorturiko enpresa-sareari (Kataia Consulting, Errexal eta Ortzi Muga) Jaurlaritzako Gazteria Sailetik 2006-2009 artean nahieran adjudikatutako kontratuak aztertu dituzte.

Orduan Gazterriako zuzendari zen eta egun auzipetuta dagoen Xabier Sánchez Roblesen defentsak hainbat dokumentu aurkeztu ditu 210.000 euroko ordainketa horiek justifikatuta zeudela frogatzeko Eusko Jaurlaritzaren zigiluarekin. Baina Jaurlaritzak berak ezeztatu egin du halako dokumentaziorik erregistraturik duenik, eta fiskalak, zigiluen grafia konparatuz demostratu du faltsuak direla

(goiko irudietan). Hau da, dokumentuak asmatutakoak izan daitezkeela.

De Miguel auziaren epaiketa 2018ko urtarrilaren 8an hasi zen eta 26 lagun daude auzipetuta, gehienak Arabako EAJri estuki lotuak eta erakunde nahiz sozietate publikoetan kargu garrantzitsuak izandakoak; Alfredo De Miguel bera Araba Buru Batzarreko idazkari zen eta Aldundiko Lurralde Administrazioako arduradun, ustezko iruzurra diseinatu zutenean.

Auzian giltzarri izan da Ainhua Alberdi enpresari eta abokatuaren lekukotasuna. Berak azaleratu zuen iruzurra, 100.000 euro ordaintzeko “xantaia” salatu zutenean. Martxoaren 5ean epaiketari deklaratu zutenean Adi! Arabako Ustelkeriaren Kontrako Elkartearen babesa izan zuen: “Lekukoak jasan dituen mendeku, presio eta deskalifikazio pertsonalak ez dira nolanahikoak izan”, azaldu zuten.

Izan ere, deigarria da aparatu jeltzalearen jarrera: inplikaturako bere kideei afiliatu agiria entregatzeko eskatzera mugatu den bitartean –abokatuak eta enplegua falta ez zaizkielarik– lekukoak edo fiskalaren lana zalantzan jarri ditu “ondorio politikoak kopiatzen” dituela esanez, Joseba Egibarren hitzetan. Kopiatzen lezioak emateko baleude sikiera...

EKONOMIAREN TALAIAN

Logika kapitalistaren biktimak



Juan Mari Arregi

Tubos Reunidos talde barruan dagoen Productos Tubulares-eko langileek mobilizazio handi bat hasi dute mehatxaturik dituzten lanpostuak defendatzeko. 157 kaleratze aurreikusten dituen espedienteak, al-tzairutegiaren itxiera, soldadak %25 murriztea enpresan geratzen direnei... Egoera hori, enpresaren arabera, nazioarteko testuinguruak sortu du, Donald Trumpen erabakiek alegia. Ba ez.

Egia da nazioarteko koiunturak eta Amerikako Estatu Batuen politikak enpresen bilakaeran eragin dezaketela. Baina langile hauek ez dira Donald Trumpen eta bere politiken biktimak, logika kapitalistarenak baizik, akziodunen interesak zaintzea eskatzen baitu honek –finantza erakundeak barne– langileen gaitetik. Hau da, Trumpek bezala pentsatu eta jarduten duten akziodun batzuen biktima dira.

Euskal enpresa talde honek, Tubos Reunidos-ek, orain gutxi arte uste zuen Productos Tubulares bere “altxorra” zela, nazioartearen aitor-tza zuten hoditeria produktu bikainengatik, etekin oso handiak ematen baitzizkien beti. Azken hiru urteetan, 2014tik 2017ra, Tubos Reunidos-ek bere akziodunen artean 240 milioi euro banatu ditu irabazi horiei esker.

Orain nazioarteko krisia iritsi da eta akziodunek ez dituzte euren pribilegioak galdu nahi inola ere ez; etekinak kobratzen segi ahal izateko, logika kapitalista erabili dute: enpleguak ezabatu, lan-kostuak murriztu, instalazioak itxi eta produktibitatea handitu. Zergatik ez zuten oparoaldian lorturiko etekinen zati bat erreserbatu krisia zetorrenetarako, kaleratzeak eta itxierak saihesteko? Horregatik beragatik: Trumpek duen logika kapitalista huts berberagatik.



ERREKALEOR BIZIRIK

ZAD eremu okupatuko kideek polizia operazioari eusten diote

BRETAİNIA. Notre-Dame-des-Landes Bretainiako baso okupatua husteko operazioari ekin zioten 2.500 jendarmek apirilaren 9an. Astebetez poliziari aurre egiten aritu diren jendeek salatu dute material militar gogorra erabili dutela agenteek; tartean, gas negar-eragileak, GLI F4 granadak eta gomazko pilotak.

Aiaraldea hedabidearen hitzarmena eten du EAJk

Aiaraldea.eus

@aiaraldea

1,8 milioi euroko aurrekontua izango du Artziniegako Udalak. Udal aurrekontua babestearen truke, baldintza bakarra jarri du PPK: Aiaraldea hedabidearen hitzarmena eta publizitatea kentzea, eta hala egin du EAJk.

0,60 euro biztanleko

Aiaraldea hedabideak 1.500 euroko diru-laguntza jaso izan du azken zazpi urteetan euskal hizkuntzaren sustapenean egiten duen lanagatik, biztanle bakoitzeko 0,60 euro. Alabaina, PPren eskaerari men egin eta eten egin dute hitzarmena.

Irismena

Bazkide eta erakunde finantzaketari esker ditu martxan, besteak beste, euskara hutsezko Aiaraldea Gaur hedabide digitala eta *Aiaraldea Hemen* egunkaria. Erabakiak eskualdeko udalerrir guztietan adostutako hitzarmena apurtu du.

"Antidemokratikoa"

Euskararen normalizaziorako gaketzat jo du komunikabidearen lana EH Bilduk: "Beto argi bat da, erabaki guztiz antidemokratikoa. EAJk artziniagarren aurrean justifikatu beharko du euskararen sustapenaren aurka doan erabakia".

FEMINISMOA



1.450

euroko zigorra jarri dio Udalak Gasteizko Martxoaren 8ko Asanbladari, greba feministara deitzen zuten kartelak jartzeagatik.

750

euroko isuna jarri diote Euskal Herriko Bilgune Feministari, eta beste 700 euroko zigor bana, asanbladako beste bi parte-hartzailei.



SARA MAJARENAS

13 urteko espetxealdia amaiturik, aske geratu da Sara Majarenas euskal preso politikoa. Haren izenak oihartzun handia izan du, iazko urtarilean 2 urteko alaba labankadaz bere aitak larriki zauritu ostean. Mobilizazio handiak izan ziren bai Sara eta bai Izarren hurbiltzea eta kaleratzea eskatuz.



EUSKOA GARAILE

Herriko etxeek euskotan ordaindu dezakete: Paueko Auzitegiak baieztatu du. Pirineo-Atlantiko Prefetak eskatu zuen Baionako Herriko etxearen eta Euskoaren arteko hitzarmena blokeatzeko, baina epaileak ez du ikusi horretarako arrazoirik.



ADARRA ANARIRI

Donostiako Udalaren eta Donostia Kulturaren Adarra Saria Anari Alberdi abeslariari emango diote aurren. Hogei urteko ibilbidean "musikari nortasuna" ematea nabarmendu dute. Saria jasoko duen lehen emakumea da.

Oaxakatarrei ekonomia berdeak *bortizkeria* iraunkorra eraman die



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Mexikoko Oaxakan Tehuantepec istmoa bilakatu da munduko haize-errota parke handienetakoa, erregai fosilak kiskaltzea gutxitu gabe energia berriztagarrietan txapeldun agertu nahi duten korporazio handien erakusleho. Ekonomia ustez berdeak hor erakusten du, ordea, itzalpeko aurpegi itsusia: natur baliabideen lapurretaz kexu diren herritarrei konpainiek, gobernuak eta militarrek intentsitate apaleko gerraz erantzuten die. Kontrainsurgentzia zaharraren aplikazio berriak.

“Suntsiketak aurrera darrai. Ingurumena bakarrik ez dute suntsitzen: jende indigena eta ez indigenek beren ekosistemak, kulturak eta bizitzeko modu alternatiboak industrialen esku hartzearen aurrean defenditzeko dauzkaten egiturak ere suntsitu nahi dituzte. Gobernuak eta sozio dituzten enpresariak gerra deklaratu diete. Marcos komandante-orde zapatistak *Laugarren Mundu Gerra* deitu duen honek aurrera jarraitzen du, mundu osoan bezala”. Alexander Dunlap unibertsitario holandarraren hitzak dira, berrikitan “*Wind Energy: Toward a 'Sustainable Violence' in Oaxaca*” titulupean plazaratutako txosten akademiko batean.

Amsterdameko Vrije unibertsitatean Antropologia Sozial eta Kulturalaren saillean ari den Dunlapen egonaldia luzeak egin ditu Tehuantepec istmoko herrietan barrutik ezagutzeko energia eolikoaren sustatzailen eta herritarren arteko gatazkak eta baita Alvaro Obregon –zapotekeen hizkuntzan Gui’Xhi’Ro’– hiriko gobernu indigena komunitarioaren sorrera eta garapena ere.

Tigre Basatia delako batek honela laburbildu dio egoera Dunlapi: “Diote haize-erroten garapenaren zergatia beroketa globalean datzala, baina iruditzen zait enpresaburuek aitzakiatzat darabiltela. Gure hizkuntzan beroketa globalari esaten diogu *lurraren gaixotasuna*. Ama Lurra eri da, baina dirua daukaten horiek Ama Lurraren eritasunari etekina ateratzen diote lehen nazioetako

jendeari natur baliabide guztiak lapurtzeko. Osten ari zaizkigu gure ura, gure haizea, gure lurra, gure oihanak”.

Munduko Bankuak aspaldi idatzi zuenean Mexikoko Tehuantepec itsas bazterrak dauzkala “munduko haize baliabiderik onenak”, Ipar aberatseko kapitalari non inbertitu erakusten ari zitzaion. 2000. urtetik 2016ra bitartean 27 parke eoliko eraiki dituzte bertan 1.800 haize-errota baino gehiagoz. Hasieran iparralde menditsuan zutitu zituzten errota erraldoiak, funtsean konpainia iparramerikarrek eta espainiarrek: Iberdrola, Acciona, Endesa, Gamesa... Primeran zetozkien 1992an Mexikok ezarritako Elektrizitate Legearen aldaketa eta AEBekin sinatutako NAFTA itun berria.

La Venta, La Ventosa, Santo Domingo Ingenio eta Union Hidalgo udalerrietako lekuko eliteek, pozarren sustatu zituzten parke berriak, konpainiei bide guztiak erraztuz ustez langabezia eta txirotasuna arintzera omen zetozen proiektuetan. Laster ikusi zen promesa gehienak gezur hutsak zirela eta aberastasunaren orde zetozen gero eta gogoragoak zetozkiela haize-errota berrien inguruan oztoporik jartzera ausartzen ziren bakanei.

Energia berdeak, ordea, gero eta etekin hobeak ematen zizkietenez, konpainiek eta gobernuak ekin zioten bigarren faseari, Tehuantepec istmoko hegoaldean. Zapoteka eta Ikoot etnietako jendeak bizi dira bertan, asko arrantzatik.

Ez zieten ongietorririk egin. 2006an Mareña Renovables –orain Eolicas del Sur– hasi zenean Bii Hioxo parkea eraikitzeke planekin, ordurako abisua pasea zieten aurretik iparraldeko mendialdean haize-erroten *miraria* probatuta zeukatenek: “Guk pobre izaten segitzen dugu baina orain haize-errotaz inguratuta”.

Izenez *iraunkor*, izanez *jasan ezinezko*

Herritarrei baimenik eskatu ez izana, ustelkeria politikoa, negozio berriaren etekinak ez banatzea, arrantzaileei beren lana eragotzea, eraikuntza berriek egindako suntsiketa ekologikoak... denak pilatuta lehertu zen jendearen haserre Alvaro Obregon (Gui’Xhi’Ro’) herrian. Konpainiak eta agintariak antolatutako erantzun bortitzak (jipoiak, mehatxuak, hilketak...) ez zuen konpondu egonezina.

2013ko otsailaren 2an borrokatu zen *Barrako Gudua*, zeinetan matxinoek badi barruko barra defenditzeko blokatu zuten barrikadaz, alde egitera behartuz erasoan etorritako 500 polizia. Hartatik sortu zen matxinoen polizia komunitarioa. Eta 2013ko abenduaren 8an bortizkeriarik gabe lortu zuten Gui’Xhi’Ro’ko udaletxea berenganatzea.

Geroztik bi bloke eta bi botere bizi dira elkarren ondoan ahal bezala Alvaro Obregonen. Alde batetik orain arte Mexiko osoan bezala hemen ere agindu duten alderdietako kide, funtzionario eta kazikeen bandoa, *Constitucionalistas* deitua –jende gehienentzako *Los Con-*





Mexikoko 'El Hormiguero' hedabideak zabalduko irudian, zapoteka etniako emakumeak protestan beren itsas hegian atzerriko korporazioek eraiki nahi dizkieten haize-erroten eta haiantzako azpiegituren –tartean portu berri bat– kontra. Agindutako aurrerapen ekonomikoaren ordez, arrantza lekuak hondatu eta bizimodua lehenaz gain gogortu dietelako kexu dira.

tras– aginte zentralaren eta haize-erroten konpainiaren babesarekin. Bestetik *Comunitarios* jendea, klase askotako militante eta herritarrez osatutako blokea, polizia propioarekin eta indigenen ohiko ohitura eta legeen arabera elkarbizitza antolatzen saiatzen direnak. Honek ekarri du, Dunlapen analisisan, intentsitate apaleko gerra zibil bat.

Intentsitate apaleko gerraz edo kontra-intsurgentziaz ari da, gobernu eta korporazio handiek matxinoen kontrako borroka asimetrikoa kudeatzeko erabiltzen duten tresna multzo zabala: operazio psikologikoak (PSYOP), hedabideen manipulazioa eta baita politika sozialen erabilera ere. 90eko hamarkadan, kanpaina polizial eta militarrek gero eta garestiagoak direla eta, neoliberalak garrantzia handia hasi zitzaizkion ematen gizartearen oniritzia

lortzeari. Jendeen onarpena lortzeko estrategien artean aipatzen ditu Dunlapen Korporazioen Erantzukin Soziala (CRS ingelesezko sigletan) eta Proiektuen Aldez Aurreko Kontsulta (FPIC).

“CRS eta FPIC horiekin–dio Dunlapen–, Oaxakan ikusi den moduan, ahalegintzen dira gatazka goxatzen harreman publiko eta komunikazio sofistikatuak bitartez, diru garden eta ezkutatuak erabiliz gizartea zatikatzeko eta herri galdaketak erabiliz proiektu estraktibo gatazkatsuei legitimitatea emateko. Askok bestela uste arren, ez CSR eta ez FPICek baimentzen diete ez indigenei eta ez beste ezein giza talderi martxan dauden proiektuak gelditzerik. Oso alderantziz, jendeak derrigortzen dituzte hautatzerak: edo negoziatu, konpainiaren eskaintzak onartuz, edo borroka egin proiektuak gelditzeko”.

Euskaraz garapen *jasangarri* eta *iraunkor* itzuli izan den *sustainable development* ideiak bere bidea egin du 1987an *Brundtland* txostenean aurkeztu eta 1997an Kyotoko gailurrean kontsaktatu zutenetik: “Hitz batez, ekonomia berde deitua ez da Laugarren Mundu Gerraren jarraipena baizik, bes-telako baliabidez. Oaxakan haize energiaren garapenarekin hala ageri da”.

Guregandik hurbilago, Britainiako Notre Dame Des Landes inguruan ikusten ari garena *Reporterre* aldizkarian Herve Kempf kazetariak lotu du *Gerra Zibil Mundiala* deitzen duenarekin: “Funtsean mundu mailako gerra zibil bat ari da gertatzen, agintean diren klaseek daramatena mundializazioak zorabiatuta dauzkan herrien kontra, eta kapitalistek ezarritako *shock* estrategiari oraindik aurre egitea lortzen duten taldeen kontra”. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Mugimendu feministak bake prozesuan parte hartu behar du»

Zuriñe Rodríguez

Egia mingarriei tokia egiten

Zuriñe Rodríguez kazetariari beti interesatu zaio ea emakumeek zer rol bete dituzten gatazka armatuetan, baina konturatua zegoen beti dela errazago urrutiko korapiloak aztertzea norberarenak baino. Hara non, ordea, masterreko lanean zer gai landuko zuen erabaki behar zuen asteen, orduantxe iragarri zuen ETAk behin betiko utziko zuela jardun armatua. Eta hala ekin zion Rodríguezek hura aztertzeari, gure hau.

Testua: Danele Sarriugarte Mochales

Argazkiak: Dani Blanco

ETako emakumeak hedabideetan nola erretratatu dituzten, horixe ikertu zenuen aurrena.

Begien bistakoa da komunikabide konstituzionalistek jarrera misoginoa izan dutela ETako militante emakumezkoen gainean, baina nik sumatzen nuen komunikabide abertzaleek ere izango zituztela halako jarrerak, bai progresistek bai kontserbadoreek. Eta hori aztertzen hasi nintzen.

Zer garai aztertu duzu? Eta zer ondorio ateratu?

ETaren historia osoa hartu nuen kon-tuan. Ondorio nagusia, hauxe: ZEN Plana [Zona Especial Norte] sortu zuenean Espainiako Barne Ministerioak, 1983an, komunikabideen politikak aldatu ziren, bietan, komunikabide konstituzionalis-tetan eta Euskal Herriko komunikabide abertzaleetan. ZEN planean badago atal

txiki bat, zeinean biltzen diren komu-nikabideentzako gomendioak. Eta hor esaten da ETako militanteen ohitura txar eta arraroei erreparatu behar zaie-la. Horrek aitzakia eman zuen emaku-meei buruz hitz egiteko komunikabi-deetan.

Zer aldatu zen?

Komunikabide konstituzionalista kont-serbadoreak (*ABC*, *El Mundo* eta *La Razón*) eta progresistak (*El País*) miso-ginia hutsa erabiltzen hasi ziren. Adibi-dez, idatzi zuten militante jakin batek alutik adina isurtzen zuela odola pis-tolatik (*ABC*). Bestalde, komunikabide konstituzionalista ez-kontserbadoreek munstro bihurtu zituzten emakume mi-litanteak. Ez dute inoren alurik aipatzen, baina terrorista odolzale gisa aurkezten dituzte. Horrela sortu zen adibidez Idoia Lopez Riañoren inguruko mitoak.

Zuriñe Rodríguez Lara

1988, Gasteiz

Kazetaria eta ikertzailea. Hainbat komunikabideetan eta unibertsitatean jardun da. Gaur egun, ordea, Sudergintza ikerketa-kooperatibako kidea da, Nora Miralles eta Itziar Mujikarekin batera. Gatazka, bakea eta memoria lantzen dituzte, eta horrekin lotutako gaitze-prozesuak egiten dituzte, emakume helduekin batez ere. Adibidez, aurtengo martxoaren 3ko prozesua haiek landu dute, eta aurki kaleratuko dute horri buruzko liburua. Aurrez beste liburu bat publikatu du Rodríguez: *Borroka armatua eta kartzelak* (Susa, 2016), Oihana Etxebarrietarekin lau eskutara idatzia.



PERUMEN SURYANG
INDONESIA 12
NO. 12 SURYANG
CANTON LIAH MUKAM



Eta Euskal Herrikoetan?

Medio kontserbadoreek (*Deia*) Espainiako hedabide aurrerakoien bidea hartu zuten: odolzalea, munstroa... Emakumetasunaren arrastorik ez, kasu batzuetan salbu. Komunikabide progresistek, aldiz, batez ere *Egin*-ek eta *Gara*-k, mitifikatu egin zituzten militantek, baina glorifikazio horrek amatasunarekin zuen zerikusia batez ere. Zentzu horretan irakurketa desaktibista eta esentzialista zen. Horrez gainera, modu inkontzientean izanik ere, Espainiak asmatu dituen izengoitiak erreproduzitu zituzten, adibidez, Lopez Riañoren kasuan.

ETako militante izandako beste emakume baten kasua ere aztertu duzu gertutik: Dolores Gonzalez Katarain Yoyes.

Gonzalez Katarain eta Lopez Riañoren kasuak hartu nituen haietaz hitz egin delako gehien komunikatiboki, eta bi garaitakoak direlako. Yoyes ZEN plana baino lehenagokoa eta Lopez Riaño, berri, ostekoa, eta biak ETatik aldenduak.

Aztertu nituen Yoyesen erailketa eta Yoyesen heriotzaren 30. urteurrena, eta ikusi nuen komunikabide konstituzionalista kontserbadoreek emakume ho-

Zuriñe Rodriguezen ustez, Aieteko edo armagabetzeko argazkiak ikusita, argi dago gizonetako ari direla bake prozesuaren buruan. Rodriguezek ETako emakumeak hedabideetan nola erretratatu dituzten ikertu du, besteak beste, Yoyes eta Idoia Lopez Riaño.

rri militantzia barkatu ziotela: ez zuten militante eta terrorista ohi gisa aurkeztu baizik eta ETak eraildako gisa. Denboraren poderioz, ordea, amatasunari eman zioten garrantzia. Erail zuten garaian, komunikabide konstituzionalistek haxe esan zuten: ETako buruzagia erail dute. 30 urte geroago, ordea, ama zelako erail omen zuten. Beraz ikusten da komunikabide horiek barkatu ziotela ez bere erabaki politikoagatik, baizik eta ama zelako, bueltatu zelako “buelatu beharreko tokira”. Eta zergatik diot hau? Bada Lopez Riañorekin justu kontrakoa gertatu delako. Nahiz eta hura ere ETatik aldendu, komunikabide kontserbadoreek terrorista ohi gisa tratatzen dute eta segitzen dute bere itxuraren inguruko hamaika artikulua idazten.

2016an izan ziren 30 urte Yoyes hil zutela. Hemen nola bizi dugu gai hori?

Uste dut gure tabua dela. Oso gutxi hitz

egin dugu haren inguruan, eta mugimendu feministan oraindik ez dugu hitz egin. Yoyesek bazeukan eguneroko bat, eta feminismoaren inguruko hausnarketak asko daude hor. Uste dut badela meloia irekitzeko garaia.

Komunikabideetako errepresentazioak aztertu ondoren emakumeekin eurekin biltzen hasi zinen.

Komunikabideak aztertzea oso bakartia zen eta muga bat zuen. Iruditu zitzaidan pauso bat gehiago eman behar nuela.

Zer garaitako emakumeekin bildu zara? Zenbatekin?

Hasieran ETaren historia osoa hartu nahi nuen, baina zaila zen hainbat motibo tarteko (atxiloketa masiboak, kartzela, beldurra, estigma...). Elkarriketatu ditut ETaren sorreratik (1956) ETA politiko militarra desegin artekoak (1982). Data hori hartu nuen zeren ETAp de-segin zenean emakume batek irakurri zuen komunikatua, eta polita iruditu zitzaidan sinbolikoki. Bestalde, asko hil-hurren zeuden, eta urgentziazko kontua zen haiekin biltzea.

28 emakumerekin egon naiz. Erabaki nuen ez nuela nik epaituko nor zen



ETako kidea eta nor ez; haiei galdetuko niela. Zergatik? Bada sumatzen nuela-ko emakume askok ezin izango zutela ETAn sartu trabak izan zituztelako, beraz emakume batek esaten bazidan bere esperientzia kontatu nahi zidala, ez zela ETAn egon baina sartzeko ahal-egina egin zuela eta arazoak izan zituela horretarako, bada nik onartu egingo nuen. Gero, bi profil sailkatu nituen: batetik ETako emakumeak eta bestetik laguntza-sareko kide izandakoak, ez Espainiako Estatuak laguntza-sare moduan ulertzen duen zentzuan baizik eta feminismoak ulertzen duen moduan. Beharrezkoa iruditzen zitzaidan aztertzea nola sostengatzen ziren emozioak, janaria eta oro har politikotzat jotzen ez den intendentzia hori.

Zer-nolako bidea izan da?

Oso zaila... Elkarrizketatu ditudan emakume batzuek amnistia jaso zuten bere garaian, eta beste batzuek jada bete zuten kartzela-zigorra, beraz askok ez zuten ondorio polizialik jasotzeko bel-
durrik. Edonola ere ez zen denen kasua, batzuentzat arriskutsua baitzen beren esperientzia kontatzea. Horregatik, izengoitiak erabili ditugu. Hortik apar-

te, arazo pertsonal eta emozional asko topatu dut. Batzuek ezin zuten hitz egin herriaren estigmarengatik edo, beren historia kontatuz gero, herrian jakin-go zutelako nor ziren. Hori bada ondorio bat: estigma handia dagoela oraindik. Zaila da gauza batzuen inguruan hitz egitea; azken batean, emakumeek hitz egiten dutenean gudariaren mitoa apurtzen da. Nik beti galdetzen nien ea bazegoen zerbait ez zutena aipatu nahi, lasai esateko eta ez niela hartaz galdetuko. Pentsatzen nuen izango zirela torturak, errepresioa... Baina askotan izaten zen amodioa, bikote-hausturak, umeen kudeaketa... Askotan, oztopo ziren patriarkatuarekin zerikusi zuzena duten gauza horiek.

Bestalde, traba handiak aurkitu ditut gizon abertzaleen aldetik. Askotan esan zidaten ni ez nintzela pertsona aproposa ikerketa egiteko, eta mila oztopo jarri dizkidate: biltzarretan betoa jarri, liburu akademikoetarako idazkiak ukatu... Nik argi daukat zergatik egin duten hori: ez zaielako nire ikuspegi feminista gus-
tatzen. Misoginia hutsa. Alboan badituzte kide batzuk ETari buruzko ikerketak egiten dituztenak, gizonak direnak eta gasteak, eta ez dute inongo betorik jaso.

Bere garaian zuk zure buruari egin zenion galdera bat ekarri nahi dut orain hona: zer motibazioen ondorioz erabaki zuten emakume horiek ETAn sartzea?

Esan digute emakume asko ETAn sartu zirela beren bikotekidea han zegoelako, baina ikusi dut ez dela hala: nik elkar-
rriketatu ditudan emakume guztiek, batek izan ezik, motibazio politiko-ideo-
logikoak zeuzkaten, motibazio arrun-
tak, gizonen modukoak: Euskal Herri independente baten alde borrokatzea, frankismoaren aurka borrokatzea... Eta badaude arrazoi zehatz batzuk emaku-
meek aipatu zituztenak eta gizonak ez
-gizonak ere elkarriketatu baitituzte, ha-
mar-: adibidez, gertakari tragiko baten eragin emozionala (gertuko zuten nor-
bait hil edo torturatu izana), eta emaku-
meen erreferenteak (Burgoseko prozesuak eragin handia izan zuen zentzu horretan, ETako hiru emakume militan-
te epaitu baitzituzten: Itziar Aizpurua, Arantza Arruti eta Jone Dorronsoro). Horrez gainera, feminista moduan iden-
tifikatzen diren emakumeek haxe esa-
ten zidaten: "Ni *terrorista* sartu nintzen etxe-
koandre ez izateko". Emakume ho-
riek sekulako zaplaztekoa hartu zuten, zeren askapen-mugimenduak ez dira

hain askeak, baina bazuten herritik eta arautik aldentzeko gogo.

Gatozen oraindira. Nola ikusten duzu Euskal Herriko bake prozesua?

Zaila da. Ikusita zer-nola-ko bake prozesua den eta kontuan hartuta Espainiako Estatuaren inmobilismoak eraman gaituela beste formula batzuk adostera, uste dut horrek sekulako aukera eman dezakeela oinarrian edo bazterrean gauden subjektuek parte hartzeko bake prozesuan, baina prozesu hori ez da horrela bideratzen ari. Saia-kera batzuk egiten ari dira, baina gehiago egin behar dira. Aieteko edo armagabetzeko argazkiak ikusita, argi dago gizonezkoak ari direla prozesu honen buruan. Uste dut hori gertatzen ari dela gizonek borroka egin dutelako eta beraz bakea ere eurek egin nahi dutelako, eta zentzu horretan uste dut batez ere interpelatu behar ditugula ezkerreko gizonak, baina baita mugimendu feminista ere. Mugimendu feminista, oro har, ez dago gatazkaren irakurketa kritiko bat egitearen alde. Kolektibo batzuk buru-belarri ari dira honetan, Bilgune Feminista kasu, eta bagaude satellite batzuk, baina oro har mugimendu feminista ez dabil honetan, eta niri beldur handia ematen dit horrek, uste baitut bake prozesu patriarkal baten aurrean gaudela.

Zergatik hartu behar luke parte mugimendu feministak bake prozesuan?

Euskal Herriko agente bat delako, ez dago besterik. Ezin duguna da sindikatu nagusiei deitu, gizarte-eragileei, gobernuz kanpoko erakundeei... eta mugimendu feministari ez. Nik uste dut mugimendu feministak ematen duela indarkeriaren irakurketa oso bat, eta zer egon da Euskal Herrian ez baldin bada indarkeria-egoera bat? Bestalde, zenbat emakume erail dituzte ETak jardun armatua utzi zuenetik? Orain ez dago ETaren biktimarik, baina emakumeok ere biktima politikoak gara. Emakumeak, Ekai [bere buruaz beste egin duen gaztetxo transexuala]... heriotza politikoak dira horiek, guk biktimak dauzkagu oraindik, baina ez gara



» “Orain ez dago ETaren biktimarik, baina emakumeok ere biktima politikoak gara”

atera eta esan gizarte honetan gudan bizi garela. Euskal Herrian gure bake prozesua eraikitzen ari gara, balia dezagun aukera hori.

Amaitze aldera, eta gaiz beste, hiru amu bota nahi dizkizut. Bat: 2016ko apirilaren 9a, *Feministok prest manifestazio nazionala; zergatik Gasteizen?*

Beti galdetzen digute zergatik egin genuen Gasteizen, eta gu beti haserretzen gara eta erantzuten dugu: zergatik ez? Euskal Herriko mugimendu feministak antolatutako manifestazio bat zen, ez Gipuzkoako edo Bizkaiko mugimendu feministak antolatutakoa, eta Gasteiz Euskal Herria da.

2015eko udan, kriminalizazio-prozesu bat gertatu zen Gasteizen [mugimendu feministak ekintza bat egin zuen, emakumeek jai-espaziotan pairatzen dituzten erasoak salatzeke, eta horren ondoren Blusa eta Nesken Batzordeko ordezkariak salaketa ipini zien bi militantari]. Bazegoen halako behar orokor bat manifestazio bat egiteko. Arabarrok aprobetxatu genuen eta proposatu genuen bertan egitea. Eta esan behar dugu zalantza asko piztu zituela barruan, eta halako paternalismo bat egon zela kanpoan (komunikabideetan) eta barruan. Mugimendu feministan hitz egi-

ten dugu periferiako eta arautik kanpoko gorputzez eta diskurtsoez, bada, orduan, lurraldetasunari buruzko eztabaida kritiko bat behar dugu.

Bi: euskara.

Nik gaztelaniaz ikasi nuen eskolan, hura da nire lehen hizkuntza, eta euskara ikastea izan da militantzia bat, hautu politiko bat. Bollera politikoak gara esaten dugun eran, ni euskaldun politikoa naiz. Ez da jaiotzen, egin egiten da, posizio batetik gainera. Egia da euskara lehen hiz-

kuntza moduan dutenek diskriminazioa jasaten dutela, handia gainera, baina hori da euskaldun subjektu bakar baten esperientzia, subjektu zuri gipuzkoarri dagokiona batez ere. Uste dut subjektua zabaldu behar dugula. Gasteizen oso prozesu politikak ari dira egiten euskararekin, ikaragarri handitu da euskara hitz egiten duen jende-kopurua. Euskara bigarren hizkuntza izatea ez da problematikoa, hori uste dugu iruditzen zaigulako lehen hizkuntza gaztelania dela, baina nire bizilagun Muhammedek, adibidez, arabiarra du lehen hizkuntza eta nirekin, ordea, euskaraz egiten du beti.

Hiru: ikerketa, unibertsitatean eta handik kanpo.

Zaila da unibertsitatean ikertzea, unibertsitateak men egin dielako nazioarteko estandar guztiz ero batzuei. Ni guztiz absurdu sentitzen nintzen publikatzen nuenean Herbehereetako aldizkari batean Euskal Herriko gatazkaren inguruko artikulua izugarri akademiko bat, hona ekarri gabe. Niri ikerketa soziala gustatzen zait. Gatazkaren eta memoriaren inguruko gauzak egiten ditut, eta behar dut gauzak lasaitasunez egin, ez bi urteko epean 28 emakumerekin bildu kontu oso mingarriez hitz egiteko, akademiak hori eskatzen baitizu. Akademia oso urruti dago errealitatetik eta herrian gertatzen diren gauzetatik, eta ziztu bizian ari da prekarizatzen. Langileak oso gaizki daude. Gainera, ezkerreko patriarkatu oso-oso potente bat dago, eta oso zaila da emakume feminista kritikoa izatea. Horregatik guztia-gatik erabaki nuen kanpotik ikertzea. ■

Merkatuaren dogma eta ondorioak

Azken ekonomia uzkurraldian Grezia, Irlanda, Espainia eta Italiak pairatu zituzten ondorio larrienak, eta burua ezin altxatuz dabilta harrez gero. Esaten ziguten Europar Batasuneko (EB) merkatua eratu ahala, ongizatea besterik ez genuela eza-gutuko, baina denbora aurrera doan heinean, oso talde txiki bat profitatzen ari da, %1 ospetsu hori. Bien bitartean, gehiengo zabalarentzat miseria, etxe-gabetzea, langabezia edo soldaten balio galtzea ekarri du; ahaztu gabe jubilazio pentsioak murrizten ari direla edo hezkuntza, osasungintza edo menpekotasunerako gastu publikoak jadanik arras apaldu direla. Hori guztia merkatuak bideratu al du edo erabaki politikoak daude atzean?

Izan ere, egoera larri horretatik irteteko merkatuan ipini nahi digute ardura eta erantzuna, Erdi Aroan jaungoikoaren gain ipintzen zuten bezala. Merkatuak esleipen zuzen eta bideragarria egiten omen du, nahiz auzitan egon merkaturen gaitasun hori.

Kontraesana ez al da defendatzea merkatua planifikatutako eremua dela? Nire hipotesiaren arabera, merkatua planifikatzen dute enpresa erraldoiek, zeintzuek horniketa kopuruak, merkatu zatia eta prezioak finkatzen dituzten. Bestela begiratu elektrizitate edo erreagaien merkatuetan zer-nolako eragina dugun kontsumitzaileok. Enpresa hornitzaile urri batzuek finkatuko dituzte prezioak eta kopuruak, erdietsi gura dituzten mozkinen arabera.

Eraikitzaile handiek ere ez dute merkatuaren arabera jarduten. Hauek, trenbide, aireportu, itsas portu edo errepedearen "premia" dagokion gobernuari salduko diote eta honek inbertsio estrategiko bihurtuko du, herritarrok ez dezagun auzitan ipini. Edo agindua EBko Batzordetik etorriko da, eta dagokion gobernuak derrigorrez egin behar



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Finean, hiritarrok te(kn)okrazia-politikoaren egitasmoak onetsi besterik ezin dugu egin. Estatuak horrela funtzionatu behar zutela defendatzen zuen neoliberalismoaren sustatzaile nagusiak, Friedrich Hayek ekonomialariak, eta bitartean Hego Ameriketako diktadurei ateak irekitzen laguntzen zien

duela aitortuko du, kontuan hartu gabe herritarren nahiak eta interesak. Finean, herritarrok te(kn)okrazia-politikoaren egitasmoak onetsi besterik ezin dugu egin. Estatuak horrela funtzionatu behar zutela defendatzen zuen neoli-

beralismoaren sustatzaile nagusiak, Friedrich Hayek ekonomialariak, eta bitartean Hego Ameriketako diktadurei ateak irekitzen laguntzen zien.

Finantza erakundearen erreskaterako erabakiak merkatuetatik at hartu ziren. EBk estatu laguntza oro galarazi eta zigortu egiten du, baina erakunde horiei dirua emateko ez zuen eragozpenik jarri eta zenbait estatutako aurrekontuak larriki urritu ditu. Adibidez, Espainiako Estatuan aurrekontuaren ia laurdena mailegu publikoek sortutako zorra kitatzeko erabiltzen ari da.

Halaber, egunero kontsumitzen ditugun ondasunak kontuan hartzen baditugu, aipatu merkatu lehia urruti geratuko zaigu. Azken finean, multinazionalen hornitzaileei prezioa ipintzen diete: Mercedesek hornitzaileei baldintzak ipintzen dizkie, prezioak barne.

Nekazariak lehengaien hornitzaile nagusiak (Monsanto) ipinitako prezioa ordaindu beharko du. Gero, nekazari horrek ekoiztutako elikagaia, normalean, banatzaile handi bati (Carrefour) salduko dio eta honek ezarriko dio prezioa, merkatuko lehia urruti geratuko delarik.

Enpresa publikoen pribatizazioetan ere gardenki ikusten da merkatutik at geratzen direla. Telefonica, Tabacalera edo antzeko enpresa erraldoiak. Pribatizatu zirenean, lagunarteko kapitalak eratu ziren eta urteetan metatutako herritarren ondarea, aitaren batean, esku pribatuen eskuetara pasa zen, hala moduko prezioan.

Egoera honetatik askatzeko, politikak ekonomiari aurre hartu behar dio, erabaki politikoak enpresa erraldoiek hartzen baitituzte; baita kultura aldaketa sakona behartu ere, neoliberalismoak ezarri digun kultur menperatzailea gaindituko duena. Bestela, neoliberalismoak agintzen jarraituko du, ekonomia politikaren gainetik egongo baita. ■

Kolonizazioa, jabegabetzea eta fikziozko mugak

Asko dugu ikasteko guztion bizitza –eta ez soilik talde batena– kontuan hartzen duten haiengandik, naturaren oparotasuna eta jarioarekin harmonian bizi diren komunitateengandik. Eta, aldi berean, guk ikasitako gauza asko deseraikitzeak daukagu.

Lolita Chavez (Ixim Ulew; Guatemala, 1971) K'iche' Herrien Kontseiluko ordezkaria da; ama naturaren, lurra- ren, eta giza eskubideen defendatzailea eta ekintzaile indigena. Komunitate- ero ageriko lana egiten hasi zenean, erasoak eta mehatxuak pairatzen hasi zen eta Abya Ayalatik ihes egin behar izan zuen; besteak beste, gure inguru- ko transnazionalak eragindako presio bortitzarengatik. Hala kontatu zigun Ooreretako hitzaldian. Ez dator karitate bila, beraien egoeraren berri eman eta mugaz gairik elkarrekikotasuna aldarrikatzera baizik.

Arazoak ez dira soilik hango buruzagiek sortuak, gure inguruan oinarritzko kate-begiak daude. Transnazionalak, armek eta kolonizazioak hemen dute jatorria, eta Lolita Chavezek hala interpelatu digu



Nora Barroso

EHU-KO IRAKASLEA

@axala_n

Arazoak ez dira soilik hango buruzagiek sortuak, gure inguruan oinarritzko kate-begiak daude.

Transnazionalak, armek eta kolonizazioak hemen dute jatorria, eta Lolita Chavezek hala interpelatu digu

urtegien inguruko herriek argi-indarrrik gabe jarraitzen dute. Titularretako energia “berdea”-k ingurune berdea suntsitu egiten du. “Jendeok ez-jende moduan tratatuak gara”, adierazi zigun zorrotz, bertakoen bizitzak ez baitira kontuan hartzen.

Merkatu-gai bihurtze horren atzean, sistema kapitalistaren jabetza eredu bortitza dago, zeinean pertsonak eta natura salerosketarako objektu hutsalak diren. Baina dena ez zen hor hasi: inbasoreek lurra hartu eta salerosketarako erabili zituzten duela ez hainbeste denbora. Lurraldeen eta pertsonen jabetza sakonago markatzeko, bertakoak kolore batekin janztera derrigortu zituzten. Gaur egun, kolonizazio mota hori guztiz barneratu eta egun folklore moduan jasotzen dute.

Eta, bitartean, komunitateak Ama Naturarekin egiten du bat, elkarrekin aurkitzen dizkiete arazoei erantzunak, beraien arbasoen hitzak dituzte presente, lurra jabetzaren aurka borrokatzen dira, elkar sendatzen dute eta elkartasun kolektiboan mugak gairitzen dituzte.

Haiengandik asko dugu ikasteko. Gu ere pertsona kolonizatuak gara, eta aldi berean, beste lurralde batzuetako kolonizazio prozesuen barruan kokatzen gara. Kontzientzia hori izatea beharrezkoa da, baldin eta bizigarria den mundua nahi badugu. Kolonizazioaz ohartzeko, jabegabetze prozesuak abiarazteko eta irudizko mugak gairitzeko tenorea da. ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak



MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
*Zure momentu
zailetarako*

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

Ni neu



Iñaki Murua
IRAKASLEA ETA
BERTSOLARIA

Niak maiz eskatzen dit “teknologia”-n eguneratuago egoteko: Iphone-aren azken bertsioa erosita beharko nuke eta auto berria, bigarren eskuko ia 350 mila kilometro dituen horren ordeztu!

Neuk erabakitzen dut, ordea, eta mugikorra 2.0 izanagatik eta modelo zaharrena, balio didala erabaki dut. Gauza bera autoarekin, eskua hartua diot eta ezagutzen ditut bere zirrikitu gehienak, akatsik ohikoenak, eta abar. Teknologia gure aurretik joatea aspalditxo onartu nuen, baina egunero erabili behar izaten dudana teknologia, ahal badut, ezagutu eta menperatu nahi dut. Aurretik joatea bat da eta aurrean hartuta berak nahi gisara eramatea bestea. Behin gure auzo herriko batek, garai hartarako oso aurreratua zen erloju digital bat erosi zion saharar bati eta, haserre bizian hau bota zigun koadrilan: “Hala esan zidan [saharar saltzaileak]: ‘honekin dutxatu ere egin zaitezke!’. Ba, dituen botoi denak behin eta berriz sakatu arren, ez du ur tantarik ere botatzen! Kabloia halakoa, harrapatzen dudanean...”

Niak “osasun” alorrean izugarri estutzen nau, inon diren birus eta bakterietatik isolatuta, erlojuaren eta pastillen mende; medikuak, lagun minenak zer aginduko; ezagun piloak, bakoitzak bere sendagile hoberena bisita dezadan edo mirarien pareko tratamenduak egiten has nadin...

Neuk, berriz, aholku denak intentzio hoberenez eginak direla pentsatuz, errespetu osoz entzun

eta sendagileen helbideak eta txartelak patrikaratuz eskertu eta pentsatu ohi dut, beste gabe dirua dugulako, kontsulta horiek denak bisitatzea eta diagnosia entzun hainbeste tratamendu egiten saiatzea, ez litzatekela justua izango. Burutik jota bukatzeko arrisku galanta! Eta aseguru on horietakoa badaukazu, gainera, bizirik baino hilda ia-ia gehiago balio duzula otuko balitzaizu... Horiek horrela, entzun beharko diozu betikoa eta betirakoa dirudien, mahaspasa bezain ximel bizi guztian ezagutu duzun amonari “hemen norbera da bere buruaren medikurik onena”.

Niak “denbora” niretzat hartzeko eskatzen dit besteentzat hainbeste aritu gabe!

Baina neuk badakit ez dudala denbora bat niretzat eta beste bat besteentzat. Denbora bakarra baita. Beraz, besteentzat sortzen eta lortzen ari naizen denboran, ni neu ere elikatzen naiz, besteak hobetzen ikusteak ni neu hobeto sentiarazten bainau!

Zenbat eta ni neuago eta neu niago, orduan eta geuago sentitzen ditut ingurua eta ingurukoak. Gutik ikusi, sentitu, bizi nahi dut nia ere, ahal dudaneurrian eta onartzen zaidan mailan. Horrela entrenatu naiz/naute!

Denbora faltarik ere ez dut izango, gainera, egungo euskaldun berrienei esker. Hau mauka! Gu denbora pasa ibiltzen ginen zereginik ez eta, hauek denbora egiten aritzen dira. Eskerrak! Badut denbora zernahitarako! ■

Zone À Défendre



Miren Artetxe Sarasola
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Notre-Dame-des-Landes herrian, Nantesko aireportutik hogeikilometrora, beste aireportu bat eraikitzeke proiektua diseinatu zen 60ko hamarkadan. Aurkari ugari izan ditu asmoak orduz geroztik –ez zen alferrik pasa 68ko maiatzako laborari-lur haieztatik–. Berrogei urte pasatxoko borrokaldiaren ondoren, bestelako bideak agortuta, lurra okupatzea erabaki zuten zenbait ekintzailek orain dela hamar urte. Laborantza eremuak berrartu, bizikidetza eredu bat eraiki, lan egin, iraun.

2012an prefekturak kanporatze agindua eman zuenean ehun bat lagun bizi ziren bertan. Ez harrokeria gutxi, *Zesar* izena jarri zitzaion ga-

liarren lurretan egingo zen operazioari. Alabaina, egun bakarreko kontua behar zuenak asteak iraun zituen. Bertako eta inguruko laborariak antolatu ziren. Ehunka pertsona hurbildu oihaltzeko hartu eta bertan instalatzera. Barrikadek eutsi zieten gas negar-eragileei eta hortik gorakoei. Eta poliziak amore eman behar izan zuen.

Urtarril honetan jakinarazi zuen Macronek aireportuaren proiektuak ez zuela zentzurik eta bertan behera utziko zutela. Ez zakurrak zahiajan, ez oiloei utzi, ordea. Idazten ari naizen unean bi mila eta bostehun polizia ari dira ZADen, gerra-gurdi blindatu eta guzti, beraiek ere ez jakin zertan. ■

Cost-killing

Kontzeptu eta lan arlo berri bat deskubritu dut egun hauetan, etorkizun handikoa omen: *cost-killing* deitzen da. *Cost-killers* aholkulari bereziak dira, enpresei proposatzen dietenak beren behargabeko xahupenak hesitzea eta deuseztatzea, edo berdin ere beren errezetak optimizatzea. Hots, performantzia ekonomikoan aditu paregabeak omen dira *cost-killers*ak.

Maleruski, fama txarra dutela deitoratzen dute, jendeak uste duelako horien azterketen ondorioz direla hainbat hilabete sari apaldu, edo hainbat enplegu desagerrarazi. Usteak erdi ustel, diote *cost-killer*sek: ez dituzte langileak erasotzen, baizik eta nagusiei laguntzen enpresak hobeki kudeatzen. Beren fede onaren aldeko elkarriketa eta artikulak irakur- eta entzungai dira hedabide berezitueta. Usteak erdi sano, dute adierazi alderantziz Carrefour multinazionalako greba egileek joan den hilabetean, *cost-killing* metodoen ondorio zuzenak jasanik esplotatuak direlakoan.

Beldurgarriena haatik da, ene ustez, irakaskuntza eta osasuna arloetan ere nagusitu dela *cost-killing*a. Urtez urte lan baldintzak okertuz doaz, urtez urte administrazioak ulertarazten digu langileria beste edozein parametro gisa hartzen duela, beste edozer gisara arrazionalizatu daitekeena: honi lan karga emendatuko zaio, horri paga murriztuko zaio, horrek berea egin du eta botako da. Aurretik finkatu estatistiken arabera behar dira eskola azterketak gaindiarazi edo gainditu, eri-etxeetan artamenak segitu ala ez. Irakasle, artatzaile, ikasle edo erioi esplikatzeko gutako bakoitza zenbat kostatzen zaion Estatuari, eta zenbateraino gure buruaren sakrifika-tze beharra duen gizarteak. Bereziki baserri aldeko gune "zokoratueta" bizi gaudelarik, nolaz ez.



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

Enpresari edo egitura publiko zenbait hasi dira, halere, "lanean ongizatearen" aldeko jardunaldiak antolatzen. Baina gehienetan, ez jendetasunez, bai performantzia, optimizazioa eta arrazionalizazioaren izenean. Euskal Herrian ere horrelako kanpainak ezagutu ditugu duela zenbait hilabete: "Nahi duzu zure enpresaren emaitza hobetu? Gogoan izan langileen ongizatea lanean!". Bistan da zoriontzekoa dela langileen oinaze fisiko eta psikologikoei adi egon daitezen manatzaileak, baina oldargarria da sistema kapitalistaren izenean gertatzea, eta ez jendetasunaren izenean. Ongizatea bera *cost-killing*aren xede bihurtua da, hondarrean kapitalismoaren eragin suntsigarrien onetan.

Cost-killers batzuek, halere, barne etika edo kuraia aski badute lanbidez arrunt aldatzeko. Kanaldude herri telebistan ari den Pankika Maitiak plazaratu du egun hauetan *Ta qué canté era montanha* (Mendiak kanta dezan) dokumentala, Barétous, Aspe eta Ossau ibarretako laborantzaren etorkizunaz. Horretan agertzen da gizon bat, 35 urte arte Bordelen finantza-aholkulari zena; lana zuen jende biziki aberatsen zergak apaltzen laguntzea. Bat-batean, dena utzita artzain plantatu zen Biarnon, diru, trebetasun eta integrazio arazo guziei aurre eginez. Filmean, negarrak heldu zaizkio bere hautua azaltzean: bere bizitza irrazionalki desbideratu zuen, bere barne sentimenduak eta behar intimoenak entzunez, askatasun, maitasun, bake eta egiazkotasun gosez. Hots, bizitzaren gozatzeko gogoz.

Gisa horretako inizatiba pertsonaletatik at, ea ba kolektiboki erran diezaiegun lehertzen gaituen sistema kapitalistaren sostengatzaileei: *stop killing!* ■

40. NAFARROAREN EGUNA

1979-2018



Apirilaren 29an Baigorriin

Bezperan Musikaldia elizan

Antolatzailea:



Laguntzaileak:

ARGIA

berria




euskalerrirratia



EUSKAL
IRRATIAK



ERIKATZA



**A, B, D EREDUAK
IKASTETXEAN**

SEGREGAZIOA ELIKATZEN

EAEko ikasleek ez dute lortzen; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu eta gaztelaniaz moldatzen dira, baina erdiak euskaraz ez. Hau da, A, B, D... letra zopa ereduak ez duela lortu gazteak elebidun izatea. Aitor Idigoras Steilaseko kideak ikastereduei buruzko eztabaida landu du eta beste hainbat faktorek eragiten duten ikasleen arteko segregazioaz ere aritu gara.



Miel A. Elustondo



JUANAN RUIZ / FOKU

Eusko Jaurlaritzak EAEko Hezkuntza Legea aldatzeko eztabaida-prozesua abiatua duen garaian, iragan urtarri-lean, *Hezkuntza esparrua eta euskalduntzea EAEn (1983-2016)* ikerketa-lana aurkeztu zuten Euskal Herrian Euskarazek eta Aztiker Soziolinguistika Iker-guneak. 1982ko Euskararen Erabile-ra Normalizatzeko Legea eta ondoko 138/1983 Dekretua indarrean sartu zirenetik oraingo egunera arteko bidea aztertu zuten delako lanean. 35 urte dira EAEko hezkuntzan irakastereduen sistema ezarri zenetik, eta besteak bes-

te, ikerketaren egileek sistema horren emaitzak baloratu nahi izan dituzte. Ondorio nagusiari dagokionez, jira eta buelta ibili gabe esan dute: irakastere-duen sistemak porrot egin du.

Porrota

“EAEn irakastereduak indarrean egon diren 33 urteetan [2016 urte arteko datuak eskuetan], 1978-2001 urteen artean jaiotako 206.263 herritarrek derrigorrezko hezkuntza amaitu dute euskara maila nahikoa lortu gabe. (...) Hain zuzen ere, derrigorrezko hezkuntza ga-

raia euskara ezagutu gabe edo nahikoa ezagutu gabe hasi zuten 409.031 herritarren % 50,43ak”. Asko dira, beraz, euskaraz ez dakitenak. Aldiz, guztiek dakite gaztelaniaz, irakurtzen, idazten eta hitz egiten.

Ondorioak bistakoak dira. Lehenik, euskaraz ikasi ez dutenak dira kaltetu, A edo B ereduan aritu direlako, jakinda eredu horiek ez direla gai ikasleak euskalduntzeko: “Euskara ezagutzeko eskubidea urratu zaie [herritar horiei], hezkuntza legeak berak ere ezartzen duena bete gabe”. Izan ere, 1982ko Le-

gearen arabera, euskara eta gaztelania menperatu beharko zituzketen ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntza bukatu aitzinetik, delako legearen 17. artikuluan idatzirik ageri denez: “Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu; halaber, euskal giroa ziurtatuko du, euskara [ikastetxeetako] barne- nahiz kanpo-jardueretan eta administrazio-ekin-tza eta -dokumentuetan ohiko tresna bihurtuz”.

Ikerketaren egileek Eusko Jaur-laritzak 35 urtez prebrikatu duela salatu dute, eta adierazi euskarazko irakaskuntzak herri ekimenari eta familien hautuari esker egin duela aurrera. “Eusko Jaur-laritzaren politikak aztertuta, ez da egon borondate politiko zintzorik ikasle guztiak euskalduntzeko. Bestelako interes politikoek gaina hartu diete herritar horien euskara ezagutzeko eskubideari”.

Dena den, prebrikazio salaketa gora-behera, bada bestelako ondorio larrik ere: “Irakastereduen ondorioz ikasleen arteko segregazioa elikatu da hamarkadetan”, hezkuntzaren egiteko nagusietakoa gisa guztietako segregazioak galaraztea eta herritar guztiei –eta ikasle guztiei, kasu honetan– aukera berdintasuna eskaintzea den arren. “Datuen gordintasunak eta eguneroko esperientziak argi adierazten digute irakastereduen sistemak segregazioa elikatzen duela. (...) Ereduen araberrakoa banaketa bereizkeria sortzeko tresna izan da hamarkadetan”. Bitariko bereizkeria, ikerketaren egileen esanetan: derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek hizkuntza ezagutza ezberdina izateak ezberdintasuna eragiten duelako, batetik, eta bestetik, ereduen araberrakoa klase eta ikastetxeen arteko bereizkeria sortzen delako. Eta zerutik jakina denez, toki askotan etorkinen seme-alabak A ereduko matrikulazioaren kopuru handiena dira. Alegia, ez dago klase edo ikastetxeen arteko banaketa orekaturik. Helburu ere ez da.

Irakastereduak izozmendi

Orain baino lehen ere hamaikatan jarri izan dira ezbaian irakastereduak. Ez dute euskararen irakaskuntza bermatzen. Steilas sindikatuko kide Aitor Idi-

» **EHE-AZTIKER IKERLANA:**
“EAEn irakastereduak indarrean egon diren 33 urteetan, 1978-2001 urteen artean jaiotako 206.263 herritarrek derrigorrezko hezkuntza amaitu dute euskara maila nahikoa lortu gabe”

» **AITOR IDIGORAS, STEILAS:**
“Ez zaio sakoneko arrazoiari heltzen. Familiak ikastetxea aukeratzeko eskubidea du, baina eskubide hori gauzatzeko osagai ezinbestekoa da eredu linguistikoa. Ume guztientzako eredu komun bat bermatu beharko luke Administrazioak, curriculum eta araudiek jaso beharko luketen gutxienekoa, zentralizatuta beharko lukeena”

gorasek gogoeta egin du: “Eredu linguistikoei EAJren eta beste zenbait eragile politiko eta sozialen eskaerari erantzun diote, hain zuzen arazoaren muinean dagoen kontuari: familiek beren seme-alabentzat hezkuntza modeloa eta hizkuntza ereduak aukeratzeko duten eskubideari”. Paradigma neoliberalizat jo du Idigorasek: “Administrazioak aukera berdintasuna bermatzeko obligazioa dauka, baina, horren gainetik, nahi duen hezkuntza eta hizkuntza aukeratzeko eskubidea aitortzen dio familiei. Horixe da eredu linguistikoak ez aldatzeko sakoneko arrazoia”. Alegia, horrela nahi duen familiei, A ereduak aukeratzeko eskubidea bermatu behar zaio. “Eta bitxia da, A ereduak maila apalenean familietako seme-alabak biltzen dira, baina baita maila gorenekoak ere”. Jakina, A eredu dira biak, baina ez dute A letra horixe besterik partekatzen. “Goreneko horien A ereduak malgua ohi da, ingelese sartzeari errazten duena, adibidez”. Atzerriko hizkuntza adibide Idigorasen gogoetan, eta atzerriko hizkuntzaren sarrera indartsua ondorio Euskal Herrian Euskaraz eta Aztikerren ikerketan. “Une honetan, haur eta nerabe askok ordu gehiago igarotzen dituzte ingeles hizkuntzarekin harremanetan euskararekin baino. Eskolaz kanpoko jarduerak, kultur kontsumoa, akademiak eta beste kontuan hartuta [ingelese hobetzeko atzerri bidaia], herritar askok astean zehar ordu dezente igarotzen dituzte ingelesean murgilduta”. Behin eta berriz eta askotan, euskara –alegia, euskaldunak– galtzaile, euskara ikasgai zehatz batzuen hizkuntza besterik ez baita.

Sakonean

Ereduen gaineko eztabaida sinplifikatu egiten dela uste du Idigorasek. “Ez zaio sakoneko arrazoiari heltzen. Familiak ikastetxea aukeratzeko eskubidea du, baina eskubide hori gauzatzeko osagai ezinbestekoa da eredu linguistikoa. Ume guztientzako eredu komun bat bermatu beharko luke Administrazioak, curriculum eta araudiek jaso beharko luketen gutxienekoa, zentralizatuta beharko lukeena”.

Beste korapiloa ikastetxearen autonomia dela uste du Idigorasek, delako autonomia horren izenean, hezkuntza sistema desarautzen ari da. “Paradigma neoliberal hori abiapuntu hartuta –hau da, familiek ikastetxea aukeratze-



“Hezkuntza esparrua eta euskalduntzea EAEn (1983-2016)” ikerketaren egileek Eusko Jaurlaritzak 35 urtez prebarikatu duela salatu dute, eta adierazi euskarazko irakaskuntzak herri ekimenari eta familien hautuari esker egin duela aurrera.

ko duten eskubidea-, sistema desregulartzat egin nahi da. Administrazioa hezkuntzaz gero eta gehiago arduratu beharrean, gero eta gutxiago arduratzera igarotzen ari gara. Horixe da diskurtsoa, eta ikusten ari garena: Administrazioa arduraz gabetzen, ikastetxeak erantzukizunez betetzen”. Autonomiaren izenean, betiere. Eta delako autonomia horrexen izenean, besteak beste, “ikastetxe bakoitzak nahi duen eredu linguistikoa aukera dezan baimentzen”. Eta, bide horretan, baita ikastetxe publikoko zuzendariak bertako langileak kontratatzeko eskumena izatea ere...

Desarautze horren ondorio da, esaterako, ingelesak dena delako ikastetxearen proiektuan izan dezakeen presentzia. Idigorasek gaztigatu gaitu: “Duela bi hilabete onartutako dekretua duzu! D ereduko ikastetxeak ingelese nahi besteko ikasgaietan erabil dezake, hizkuntza ardatz gisa. Beraz, ereduak aldatu dituzte. Eredu linguistikoak aldarazi dituzte, zenbait ikastetxek ingelese nahi duten moduan ezar dezaten. Eta badi-ra H eredu asmatu duten institutuak”. Hein batean, alarma jo du Steilaseko ki-deak: “Euskarak orduak galdu ditu leku askotan. Bertan behera geratzen ari da ikastetxe eta gela askotan”.

Segregazioa

Irakastereduak izozmendiaren punta baino ez dira, Idigorasen gogoetari jarraiki. Matrikulazioa da koxka. “Administrazioaren aurrean izan beharreko erantzukizunari dagokionez, parametro berdinetan jarri nahi dituzte sare publiko eta pribatua. Eskuineko alderdi politikoek eta beren burua aurrerakoitzat duten mugimendu askok horixe aldarrikatu izan dute, modu deigarrian, Euskal Herrian. Steilasi ulertezina egiten zaio. Arazoaren muinari, aldiz, matrikulazio kanpainari, ez dio heldu nahi Eusko Jaurlaritzak”.

Hezkuntza sistemara sartzeko matrikulazioaz ari eta iruzur hitza darabil Idigorasek Administrazioaren jokabidea definitu nahirik. “Haurra ikastetxean matrikulatzeko, dela sare publikoan nahiz pribatukoan, bakarra da araudia, baina bakarra izanagatik ere, Administrazioak bi agindu atera ohi ditu, desorekak sortuz”. Eta, menturaz, betikotuz. “Sare pribatuan, 0-2 urteko gelak ez daude itunduta, diruz lagunduta baizik; ez dute zertan doako izan. Haurra gela horietako batean matrikulatzen dela, ordea, ikastetxeak hezkuntza ibilbide osoa bermatzen dio. Administrazioak erraztu egin du hori. Sare publikoan ezinezkoa den gauza: haur eskolen partzuergo batean matrikulatzen duenak, haurrak bi urte betetzen dituenen, ohiko matrikulazio prozeduran parte hartu behar du; aldiz, sare pribatuan ari den haurrak, ez. Horrek sare pribatuaren alde egiten du, nabarmen. Eta badi-ra

KUOTAK

Segregazioari aitziz egiteko bidea den kuotak ezartzea ez dakigularik, argi-bideak baditu Steilas sindikatuko kide Aitor Idigorasek: “2009an, oker ez bano, kuoten gaineko interpelazioa egin zioten EAeko gobernari. Eta kuota ezarri zen, %30ekoa. Baina horrek ere ez du iruzurra sailhesten: matrikulazio modua, sare pribatuko ikastetxeek egiten dituzten kobrantzak... Kuotarik ezartzea ez litzateke beharrezkoa izango, erroetara joz gero, afera ez baita etorkina, klase gatazka baizik. Klase gatazka erakusten du gure hezkuntza sistemak. EAEn, hasteko, ikastetxeen %30 baino gehiago Eliza Katolikoaren esku daude, eta gobernu honek nahi dutena egiten uzten die. Elizara joan behar bada, joan egiten dira. Alferrik da Administrazioak arabiar jatorriko neska edo mutikoa horrelako ikastetxe batera bideratzea. Hilabetea ere ez du bertan iraungo, alde egingo du. Kristau eskolak, berri, ikastetxean matrikulatutakoaren artean konputatuko du etorkin hori. Kuotak baino lehen, pribilegio sistema hau hautsi behar da”. Pribilegiarik gabe, kuoten gainean hitz egin beharrik ez genuke izango, Steilaseko ki-dearen iritziko.

haurtzaindegi pribatuak, ondoko etapak dituzten ikastetxeei atxikita dau-denak. Opusekoak, kasu”. Ez da, soilik, irakasteredu gorabehera, dena delako ikastetxean baliatzen duten eredu linguistikoa baino gehiago da. Horretan da, behinik behin, Steilas sindikatuko kide Idigoras. “Afera poliedrikoa da, eredu gorabehera gaudituz behar dela esatea ondo dago, baina hori baino gehiago ere badago hor atzean. Segregazioa, adibidez. Uste dut eragile askok oso irakurketak sinplea egiten dutela. Interesak hainbat dira”.

Soluzioa, erroetan

Eragile askoren proposamena izan da soluziotzat irakasteredu bat eta bakarra, komuna, ezartzea, nahiz eta hori gure artean sakon errotuta dagoen uste baten kontra joan, alegia, eredu aukuratu ahal izateko eskubidearen aurka.

Irakasteredu bat, bakarra? “Gurean, eredu jakobinoa esanez kritikatzan dute proposamena Katalunian murgiltze eredu besterik ez dute. Bestalde, EAEn, datuek esaten digute eredu linguistikoaren eta Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakunde ISEIren arabera gizarte zatiketa dugula: A eredu ikastetxe pribatuetara, gizarte maila jasoko familien seme-alabak doaz. Ikastolen Elkartearen ikastoleta, D eredu ikastetxetara, gizarte maila ertain edo goragokoa duten familienak. Datu objektiboak ditugu, ikerketaren ondoriozkoak. Bataz besteko horren azpitik ageri dira sare publikoko ikastetxeak, eredu linguistikoak zeinahi direla ere”. Alde horretatik, zatiturik dago gizartea eta, akabuaren akabua, segregazioa dugu: “Eta segregatuta dauden ikastetxeen %95, sare publikoan ditugu. Are gehiago, ikastetxe estigmatizatu eta baztertuenek ere, kasu gehienetan, itundutako ikastetxe elitista bat dute ondoan. Ez da, beraz, hirigintza kontua. Ez hirigintzaren nola-koak ez eredu linguistikoak erabakitzen dute gurasoek haurra non matrikulatuko duten”. Oraingo egunetan lantzen ari

diren Hezkuntza Legeak gauza aldatuko ote duen jakin behar...

Hezkuntza Legea eta inguruneak

Hasteko, euskararen lorpen adierazleak ingurune soziolinguistikoaren arabera izateko proposamena egiten du lege zirriborroak. Ideia ez du begi onez ikusi Idigorasek: “Ingurune soziolinguistikoak ikaslearen euskara maila baldintzatzen du, jakina. Hori bezain jakina da, ordea, ingurune sozioekonomiko baztertuetan matematikaren lor-

pen maila ere txikiagoa dela. Inork ez du pentsatzen, hala ere, Administrazioak matematikaren lorpen maila ingurune sozioekonomikoaren arabera egokitzea. Astakeria itzela litzateke”. Euskararen lorpen maila ingurunearen baitan egokitzea ez da bidea. “Hezkuntzak jatorrizko ezberdintasunak konpentsatzea bermatu behar du, baita hizkuntzari dagokionean ere”. Eta, ezberdintasun horiek konpentsatzeko, hori dira, adibidez, aldian aldiko gela bikoizketak egiteko baliabide gehiago jartzea eta gisako neurriak. “Negoziazio kolektibo eta konfrontazio fasean gauden honetan –bost greba egun daramatzagu, eta gehiago aurreikusten ditugu–, gaia behin baino gehiagotan jarri du Steilasek mahai gainean: hizkuntzen lanketan laguntzeko, behar gehiago duten ikastetxeei baliabide gehiago eskaintzea. “Gipuzkoako eskola publikoak eta Arabakoak behar ezberdinak dituzte, eta baliabideak ere ezberdinak behar dituzte. Euskararen lorpen mailari eutsi behar zaio, eta maila horretara heltzeko behar diren baliabideak jarri ikastetxeen eskueran”. Inguruneak zeinahi direlarik ere. ■

» EHE-AZTIKER IKERLANA:

“Irakastereduen ondorioz ikasleen arteko segregazioa elikatu da hamarkadetan”



OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK

ESKAERAK
www.argia.eus/azoka
☎ 943 371 545



Ezkerretik eskuinera
Ione F. Zabaleta
eta Enara I. Dominguez.

Hilekoari beha

Bizitza ez baita lineala, biribila baizik

Emakume gorputz ezezagunak, estu hartuak, minduak, aurreiritziz estaliak. Ione F. Zabaleta eta Enara I. Dominguez irundarrak kritikoak dira ginekologia molde hegemonikoarekin. Norbere gorputzak ezagutu, behatu, eta jakintza elkarren artean trukatzeko lehenesten dute. Helburua errealitate samurragoa eraikitzea da. Hilekoaren nondik norakoak azalduz autoginekologian pausoak emateko bidea erakutsi digute.



Ane Labaka Mayoz
@anepirata

Ione F. Zabaleta (1991, Irun) eta Enara I. Dominguez (1984, Irun) Ara!Gorputz elkartearen sortzeko bidean dabiltza, gorputz eta identitate periferikoak –eta horien artean emakumeenak– ardatz izanongo dituzten jarduerak lantzeko asmoz.

Erika Irustak gidatutako hilekoaren inguruko ikas-komunitatean egin zuten topo duela bi urte inguru, artean bizilagunak zirenik jakin gabe. Ordutik, Dominguezek *Viviendo en cíclico* proiektua garatu du bere kasa eta biek ala biek

hainbat formakuntzatan parte hartzen jarraitzeaz gain, BulbAhizpak taldea ere sortu dute beste kide batzuekin batera, gorputza erdigunean jarri eta ginekologiari buruz jarduteko.

Urratzen ari diren bidea ikerketa eta erreferente gutxikoa –Kataluniako GynePunk eta Mexikoko Vulva Sapiens aipatu dituzte– dela diote. Alabaina, jakin-mina jakintza bilakatzen asmatzen ari direnez, hilekoari eta “ziklikoki bizitzea”-ri buruz hitz egin digute.

Biolentzia lineala


Gorputz eta identitate periferikoen artean kokatzen dituzte hilekoa duten gorputzak eta hilekoa prozesu fisiologikoa izateaz gain, eraikuntza kulturala ere badela azpimarratzen dute etengabe.

Gorputz periferiko horiek ez dira linealtasuna oinarri duen sisteman txertatzen. Gainera, bien iritziz, XX. mendeko 70eko hamarkadako iraultza feministatik hasita berdintasuna aldarrikatu eta emakumea gizonezkoa bezain indartsua zela erakutsi nahi izan da. Zabaleta eta Dominguezentzat ezin da zalantzan jarri indartsu izatearena, baina ikuspegi ziklikoak, zaurgarritasunak eta gorputz hauskorrek ez dute lekurik ideia horren baitan.

Hauskortasun hori, gainera, medikalizatu eta isilarazia izan da, era indibidual eta isolatuan biziaraia. Osasun sistemak eta gizarteak mina normalizatu dute. Horregatik, sistema kapitalista “krudela” gorputzetatik lehertarazi eta errealtate “samurrago” bat eraikitzea dute helburu, euren proposamena eta egungo sistema ez baitira bateragarriak.

Zikloaren faseak

Lau fase nagusi bereizten dituzte. Lehen “hilekoaren fasea” litzateke eta fase honetan gorputzak esfortzu handia egiten duela gogorarazi dute. “Obu-aurrekoa” deitzen dioten fasean, aldiz, energiak gorantz egiten du estrogenoen igoerarekin batera. Beraien ustez, hori da sistemaren baitan ondoen moldatu gaitezkeen fasea, gorputz normatiboe-tatik gertuen gauden unea baita. Hirugarren fasea “obulazio fasea” litzateke, horretan progesterona hormonak egiten du gora eta zaintzak erdigunean jartzea ohikoa bilakatzen denez hori ere sistemak gogoko duen garaia da. Lauugarren fasea da gehien gutxiesten dena, “hilekoaren aurrekoa” izendatzen dute-



na eta fase horretan printzipioz progesteronak gorantz jarraitzen du.

Zabaleta eta Dominguezen ustez, azken hori da sufrimendua saihestekotan arreta gehien jarri beharreko fasea. Izan ere, etapa horrek “sindrome” asmatu bat ere badauka, 200 bat sintoma daukana. Sindrome horren diagnostikoak bat egiten du arazoa gure gorputzetan kokatzeko joerarekin eta ez die, inondik inora, min hori sortzen duten bizi-baldintzei erreparatzen. Barrura begira eta hauskor sentitu ohi dira eta hauskortasuna adieraztea iraultza da beraientzat, sistema produktibistaren arrakala handitzeko beharrezkoa baita.

Biek irmoki defendatzen dute hilekoak berez ez duela zertan min eman eta estutasuna sentiarazi: “Sistema da min ematen duena”. Gizarte hiperazeleratuak eta elikagaietako kutsatzaile endokrinoek, esaterako, hiperestrogenismoa garatzen lagun dezakete. Progesterona hormonak eragin sedatzailea dauka, lasaitu egiten gaitu eta obulazio eta hilekoaren aurreko fasean progesteronarik sortzen ez bada estrogeno maila oso altua mantentzen da eta horrek sufrimendua eragin dezake.

Dominguez eta Zabaletaren hitzetan, osasun sistemak kaltegarriak diren pilula antisorgailuak jartzen ditu eskura horien inguruko informazio orokorrik eman gabe, izan ditzaketen ondorio kaltegarriak aipatu gabe, ugaltzeko makinatzen hartuta. Gerora obulatzeko arazoak dakartzate askotan, eta berrir ere medikalizazio prozesuetan hastea gomendatzen dute. Hilekoari buruz soilik hitz egin beharrean, ziklo obulatorioari

ere arreta jartzea aldarrikatzen dute. Izan ere, beraien hitzetan, “amatasunaz hitz egiterakoan baino ez dugu jartzen arreta obulazioan, hau da, haurdun geratu nahi dugunean”.

Norbere gorputzari beha


Norbere zikloa behatzea ezinbestekotzat dute. Hilekoari beste esanahi bat ematea da bidea: “Altxor bat da zure gorputza ezagutzea eta hilekoak horretarako baliabideak ematen dizkigu”.

Idazketa tresna bezala aldarrikatzen dute, Erika Irustak dioen moduan, gorputza hain isilduta daukagunez opakua baita guztiz. Buruaren tranpetan ez erortzeko beharrezkoa da gorputzari tarte ematea eta idazketak horretan laguntzen duela diote.

Ezagutzarako bidea hainbat modutan egin daiteke, hala ere. Idazketa librea edo ordenatuagoa –aurrez zehaztutako irizpide batzuen arabera– baliatzea da aukera bat, baina beste adierazpide batzuk lantzea ere egokia izan daiteke.

Behaketa, zenbaitetan, anatomikoa bakarrik izaten da, obulazioa neurtzeko, desorekaren bat identifikatzeko... muki zerbikalari erreparatuta, esaterako. Zenbait erabakitan lagundu dezake autoezagutzak, fasekako elikagaien aukeraketan, besteak beste.

Zabaleta eta Dominguezentzat diziplina da, autozaintzarako balio du, baina baita jolaserako ere. Beraiek umorea ardatz hartzen dute eta alter egoak izendatu dituzte fase batzuetako pertsonaiekin. Elkarren artean ulergarri diren kodeak sortzen dira horrela eta gertukoena zein fasetan dauden ja-



Enara I. Dominguezek "Ziklikoki bizitzen" webgunea dauka eta hor hilekoaren odolez egindako marrazkiak bildu ditu. Horietako batzuk dituzue argazkietan.

kiteak zaintza kolektiboa errazten du, bien iritziz.

Sormena lantzeko eta arte aktibismo-rako bide ere bada. Hilekoarekin marraztea, adibidez, hilekoa zikintasunarekin lotzeari uzteko bide bat izan daiteke. Ukitzekoa, usaintzekoa... eta erabilgarri bilakatzen da. Odola jaso eta naturari itzultzea, aurpegirako maskarak egitea, eta beste hainbat aukera aipatu dituzte. Plastikozko konpresetan zaborrontzira edo komunetik behera ez botatzeak sinbolikoki eta praktikoki duen indarra azpimarratu dute. Funtsean, zikina iza-etik baliotsu izatera igarotzen da.

Eguneko jarduerak zikloaren arabera antolatzea ere baliagarria izan daiteke. Adibidez, hilekoaren garaian janari pisutsuak jateari utz dakioke, tarte batzuk har daitezke "ezer ez egiteko" edo "obu-aurreko" fasean energia handia izaten denez gorputza mugitzeko eta kirola egiteko balia daiteke. Obulatze fasean zaintza-ardura gehiegi ez hartzea, autozaintzari garrantzia ematea eta "hilekoaren aurrekoan" emakumeak zaurgarriago egoten direnez samurtasunez inguratzea eta hausnarketarako tarteak hartzea aipatu dute Ara!Gorputz elkarteko kideek.

Jakintza kolektiborantz

Aluaz ezezagutza handia dago eta gizartearen iruditegian beldurgarri izan daitekeen zerbait dela dio Zabaletak, bai bulbadunentzat bai gainerakoentzat ere.

Iruditegi horrek asko mugatzen du aluaren inguruan dakiguna. Oro har, ez dakigu bulbak nolakoak diren eta askotan erakutsi zaigun eredu estandarra

» Sormena lantzeko eta arte aktibismo-rako bide ere bada. Hilekoarekin marraztea, adibidez, hilekoa zikintasunarekin lotzeari uzteko bide bat izan daiteke

» Eguneko jarduerak zikloaren arabera antolatzea baliagarria izan daiteke. Adibidez, hilekoaren garaian janari pisutsuak jateari utz dakioke, tarte batzuk har daitezke "ezer ez egiteko" edo "obu-aurreko" fasean energia handia izaten denez gorputza mugitzeko eta kirola egiteko balia daiteke

errealitatearen aurkakoa da. Kanpoko ezpainak, esaterako, ezpain handitzat izendatzen dira gaztelaniaz, kasu askotan hala ez izan arren.

Sistema mediko-ginekologikoa kritikagarria da zentzu askotan. Hastapenetatik hasita, AEBetan esklabu bulbadunak erabiltzen zituzten esperimentuetarako. Geroztik, gutxi ikertu da eta oraindik ere ez da hausturarik egon paradigma esklabista horrekin. Emakumeen gorputzekin esperimentatzen jarraitzen da, kaltegarriak direla frogatuta dauden tratamenduak gomendatzen dira eta arriskuen inguruko informazioa ezkututzen. Kolonizazioa gure gorputz eta bulbetan daramagula diote bi solaskideek, "hainbat gizonezko 'aurkitzaile'-ren abizenak dituzte gure genitalek eta erabat normaltzat hartzen dugu".

Zabaleta eta Dominguezen arabera, horren aurrean ahalduzko beharrezkoa da norbere ezagutza eta behaketa. Ezinbestekoa da hormonen dantzaz jabetzea, gorputz bakoitzak historia bat baitarama grabatuta. Bestetik, beharrezkoa da gorputzen kultura berri bat sortzea, ezagutza eta esperientziak kolektibizatuz.

Ara!Gorputzen baitan garatzen ari diren autoginekologia ildoaren bidez beraien paradigma esklabista deitzen diotena hausteko bidea jorratzen jarraitu nahi dute. Horretarako jakinduria modu kolektiboan eta eremu balioztatuetatik (medikuntza hegemonikotik, akademiatik...) at sortu nahi dute, eta helburua errealitate samurrago bat eraikitzea da. Autokudeatutako ginekologia talde txikiak sortu eta Euskal Herrian sarea ehuntzea dute amets. ■

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA BIZITZA EGITERA DOA

Bizitzeko proiektu baten aterpea izan asmo du. Aiaraldea Komunikazio Leihoak hauspotu du ekimena, eta komunikabide izatetik komunitate izateko jauzia ematen ari dira. Hezkuntza, feminismoa, kultura, ekonomia sozial eraldatzailea eta elikadura burujabetza ardatz, eta euskara bilgarri eta ibilgailu, bizitzeko alternatibak eraikitzen ari dira Aiaraldea Ekintzen Faktorian.



Maddi Txintxurreta Agirregabiria

@mtxintxurreta

ARGAZKIAK: AIARALDEA KOMUNIKAZIO LEIHOA



Erdaraz galdetzen duenari euskaraz erantzun. Aiaraldea Ekintzen Faktoria “*martzianokeria*” bat izan daiteke, Gartzzen Garaio proiektuko kideak dioen gisara, euskararen kaleko erabilera %4koa den eskualde batean bizitzako esparru guztietarako alternatibak euskaraz eraiki nahi baititu. Nola edo hala, talaia berean ziren orain zortzi urte Aiaraldea Komunikazio Leihoa –Aiaraldea Gaur atariak eta *Aiaraldea Hemen* perezko hamabostekariak osatzen duten elkarte– sortu zutenean, eta egun Aiaraldea.eus euskak komunikabideetatik bederatzigarren kontsumituen da sarean, azaldu dutenez.

Laudioko industrialdean kokatuko da Ekintzen Faktoriaren epizentroa. Bazkideen ekarpen ekonomikoari esker eskuraturako 750 metro koadroko pabilioia orrazten ari dira bertan, baina egoitza Laudion izanagatik ere, proiektuak eskualde osoan eragin nahi du. Orobat, hedabidearen lerro berean, proiektua ez da eskualde administratibora mugatuko. “Hedabidea sortu genuenean, ez ginen Aiarako eskualde politikora –Aiarra, Okondo, Artziniega, Audio eta Amurrio– mugatu. Aiaraldea eskualde soziologikoa litzateke”, dio Gartzzen Garaio. Hau da, Aiarako herriei Orozko, Urduña, Arakaldo eta Arrankudiaga batu zaizkie.

» Pabilioiaren barrutia eraikitzeko “denbora eta jakintzaren” *crowfundinga* egin dute, boluntariotza bidez “bakoitzak gustuko duen hori ahal duen neurrian emateko”

Hastapenak

Aiaraldea Gaur 2010ean sortu zen. Euskarazko tokiko hedabideen presentzia murriztari erantzun asmo zioten sortzaileek, eta ehundik gora boluntariok hauspotu zuten aiaraldea.eus ataria. 2013an paperera egin zuten salto, eta *Aiaraldea Hemen* hamabostekaria kaleratu zuten, biak ala biak Aiaraldea Komunikazio Leihoa markaren pean. Horrenbeste ziren proiektuak erakarri zituen boluntarioak eta atariak jasotzen zituen bisitak, ezen soldatapeko izaera hartu baitzuten batzuk, eta hedabidea gorpuzten hasi zen. 2015ean *Aiaraldea 2020* izenpetu zuten gogoeta estrategikoa abiatu zuten etorkizunari begira, eta urte eta erdi iraun zuen hausnarketa

egin zuten. “Ordu arte komunikazio arloa landu genuen, eta gazteleraz bizi den eskualde baten berri euskaraz eman dugu, baina planteatu genuen beharrezkoa zela bizitzako esparru guztietan eta balio eraldatzaileen arabera bizitzeko aukera berriak sortzea”, azaldu du Garaio. Horrela, Aiaraldea Komunikazio Leihoa Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren bidea hasi zuen.

Eusko Jaurlaritzak Gizarte Ekimeneko izendapena eman baitzion, elkartearen izaera juridikoa irabazi asmorik gabeko kooperatibara aldatu zuten iazko martxoan, eta hedabideaz arduratzen den Komunika sozietate mugatua ere kooperatiban integratzeko lanean dihardute orain. Halaber, kooperatiba “berezia” dela dio Garaio: “Erabakimenaren erdia langileek dute, eta beste erdia bazkide erabiltzaileek. Hortaz, proiektuaren helburu sozialak bermatzeko, erabaki bat hartzeko ez da nahikoa kooperatibaren erdia baino gehiago ados egotea, langileen erdiak eta bazkideen erdiak ados egon behar dute”.

Bestalde, Laudion kokaturako pabilioia askotariko proiektu eraldatzaileen bilgunea izango da. Kooperatibaren barneko enpresak eta proiektuak, Komunikak kasu, etorkizunean indibidualki emantzipatzea dute helburu.



Jakina da tamaina honetako proiektuen arazo nagusia finantzazioa izan ohi dela. Proiektuak bazkideak eta diru-laguntzak ditu euskarri, baina “askitasuna” dute helburu. “Askitasuna lortzeko eta areagotzeko, Komunika sortu zen bezala, etorkizunean proiektu gehiago sustatu nahi ditugu”, dio hedabideko zuzendari Izar Mendigurenek. Egun, diru-laguntza publikoak Faktoriaren %30a finantzatzen dute.

Balioen arkitektura

Laudioko pabilioia proiektuak garatu nahi dituen balio nagusien arabera eraikiko da. Garaiok dioenez, “hezkuntza proiektua garatzeko espazio bat izango da, haur eta gurasoentzako batez ere; elikadura lantzeko ekonomato bat bere sukaldearekin; kulturari lotutako oholtza, hedabidearen proiektua...” Hori guztia pabilioiaren lehenengo pisuan kokatuko da eta edozeinentzako espazio irekia izango da. Hedabideari dagozkion bulego eta espazioak, aldiz, bigarren pisuan eraikiko dira.

Proiektuaren sortzaileen asmoa da bertan egiten dena “publikora zabaltzea”, eta Aiaraldea Komunikazio Leihoak egingo du hori. Hala, hedabideak antolatuko ditu Faktoriako ekitaldiak, eta webgunearen edo paperearen bitartez zabalduko ditu. Bestalde, 2019an tokiko telebista pizteko asmoa dutela iragarri du Garaiok.

Balio horiek garatuko dituzten lan taldeak osatu dituzte. Hezkuntzako lan taldea, kasu, hezkuntza proiektua

garatzen ari da, eta haurren ahalduntzea eta parte hartzea sustatzea du helburu, gurasoentzako formakuntza tailerrekin batera. Izar Mendiguren feminismoaren lantaldean dago, eta esan du feminismoak “proiektu guztia” bustiko duela. Ildo beretik, Ekin-tzen Faktoria euskararen etxea izango den bezala, emakumeen etxea ere izango da, baina eskualdeko eragile feministen lan independentea errespetatuz. “Gaur egun, inguruko herrietan badira emakumeen elkarteak eta talde feministak. Artikulatuta daude, baina ez daukate elkartzeko gunerik. Ziur asko denek edukiko dituzte arazo komunak, eta horri erantzungo liokeen espazioa izan daiteke Faktoria”, azaldu du Mendigurenek.

Pabilioiaren barrutiak eraikitzeke daude oraindik. Hustu egin dute eta paretak margotu, baina asko dago egiteko. Horregatik, boluntario-saldo berri baten beharra daukate, dena auzolanean eraiki asmo baitute. *Crowdfunding* kanpaina bat abiatu dute, baina ez diruarena, “denbora eta jakintzarena” baizik. Mendigurenek zehaztu du boluntariotza “modu parte hartzaile batean, bakoitzak gustuko duen hori ahal duen neurrian” emanez egin nahi dutela.

Bestalde, proiektuaren espazio bat izango da Faktoria, espazio nagusia, baina ez bakarra. Faktoriaren eragin-eremua eskualde osora zabaltu nahi dute eta deszentralizazioa bultzatu, tokian jada lanean diharduten proiektu sozialak zapaldu barik.

Hau guztia lortzeko, harreman sare indartsua jostea beharrezkoa deritze kooperatibako kideek. “Nola eragin eskualde baten eraldaketa sozialean modu integralean? Bada, Izarkom, Goiener, Olatukoop, eta antzeko proiektuak bertara hurbilduz eta euren bazkidetza sustatuz”, esan du Garaiok. Elkar zapaldu beharrean, elkar boteretzean dagoela muina dio Mendigurenek: “Aliantzak bilatu eta denok bide berdinean eta balio eraldatzaileekin komunitatea eraiki”.

Azoka soziala

Otsailaren 24an eta 25ean Azoka Soziala antolatu zuten Faktorian, *Kontsumitzen duguna gara, bizitzeko alternatibak* lelopean. Lehenengo egunean kontsumo alternatibak, era ekologikoan lan egiten duten tokiko ekoizleak eta ekonomia sozial eraldatzaileko proiektuak aurkeztu zituzten, tartean Olatukoop, Talaios Kooperatiba eta Izarkom, kasurako. Hurrengo egunean, truke azoka egin zuten.

Faktoria izango denaren zantzurik aurkitu zuten azoka sozialera hurbildu zirenek, eta urte eta erdian egindako hausnarketa palestrara igo zuten. Gertzen Garaiok aipatu du eskualdeko askok ez zutela ezagutzen ekonomia sozial eraldatzailearen filosofia, Arabak ez duelako “Gipuzkoak besteko esperientziarik” afera horretan, eta azoka “gauza hauetaz guztietaz hitz egiten hasteko ekitaldia” izan zela. “Balioen lanketa egin genuen –dio Mendigurenek–: haurrek sukaldaritza tailerra izan zuten, eta baserritarrekin harremandu ziren. Larunbatean tokiko ekoizleen azoka egin genuen, ekoizleek euren espazioa ireki zuten hemen. Igandean, truke azoka izan zen”. Ez zen truke azoka arrunta izan: norberaren denbora, gaitasuna edota jakintza trukerako moneta bilakatu ziren.

Larunbatean, ordea, bestelako moneta bat erabili zuten. Aikoa izeneko moneta sortu zuten, errenta gaitasunaren araberakoa, hots, irabazi ekonomiko gutxien zutenek Aiko gehiago lortu ahal izan zituzten Euro batzuen truk,



Laudioko pabilioiak proiektuaren balioei leku egingo die: hezkuntza, kultura, feminismoa... Ezkerrean, arkitektura hori erakusteko diseinatu duten irudietako bat.



Urte eta erdiko hausnarketaren ondoren hasi zuten Ekintzen Faktoria sortzeko egitasmoa eta 750 metro koadroko pabilioia orrazten ari dira horretarako; bertan egin zuten otsailean Azoka Soziala (eskuineko irudian). Hala ere, faktoriaren eragin-eremua eskualde osora zabaldu nahi dute eta deszentralizazioa bultzatu.

eta, kontrara, gehien irabazten zutenentzako garestiagoa zen moneta soziala. Errenta maila baxua, ertaina eta altua bereizi zituzten. “Nahi genuen Aikoa-ren baliokidetasuna ez izatea lineala denentzako. Norberaren pribilegioez kontzientzia hartzeko balio izan zuen, eta baten batek eraso egin geniola sentitu zuen arren, ondo hartu zuen jendeak”, esan du Garaio. Orobat, Mendigurenek dio moneta sozialak aitortzen ez diren lanen inguruan gogoeta indibiduala egitera ere bultzatzen zuela. “Bada bestelako ekonomia bat, eta bestelako sistema bat eraikitzeko modurik”, diote. Moneta sozialaren proiektua etorkizunean ere sustatzea aztertzen ari direla esan dute.

Etorkizunera begira

Ekintzen Faktoriaren helburu bat da aurtun ekonomato proiektua osatzea. Ez bakarrik Faktorian bertan produktu agroekologikoak saltzeko, baizik tokiko elikagai ekologikoak bertatik banatu, kontsumo eredu berriak bultzatu eta formazioa eskaintzeko. Izan ere, eskualdean badira ekologikoan ekoizten duten nekazariak, Urduñan batik bat. Ekonomatoa ekonomia sozial eraldatzailearen bidez kudeatzeko eredu ugariaren bila aritu dira, eta Zarautzeko Lakari proiektua izan da antzeratu nahi duten bat.

» **IZAR MENDIGUREN (AIARALDEA.EUS):**
“Guk alternatiba bat planteatzen dugu, pertsona eta komunitate bezala, suntsitzen gaituen sistema sozial eta ekonomikoaren aurrean biziko eta heziko gaituena. Eragiteko modu bat nahi dugu eta ekintzen bitartez egingo dugu guztia, euskaraz”

» **GARTZEN GARAIO (EKINTZEN FAKTORIA):**
“Komunikazio arloa landu eta gazteleraz bizi den eskualde baten berri euskaraz eman dugu, baina pentsatu genuen beharrezkoa zela esparru guztietan balio eraldatzaileen arabera bizitzeko aukera berriak sortzea”

Ekintzen Faktoria Aiaraldean berri-tzailea izanagatik ere, Euskal Herrian eta atzerrian badira ekonomia soziala eta bestelako balioen bidez bizitza eredu ezberdinak bultzatzen ari diren proiektuak, eta Aiaraldeakoek handik eta hemendik hartu dituzte ideiak. Barzelonako Ciutat Invisible da horietako bat, zeina kapitalismoaren lan ereduekin apurtzen duen kooperatiba autogestionatu bat baiten. Bestalde, kooperatibaren ahalmenaren dibertsifikazioa bilatu nahi dutela dio Garaio, eta Kataluniako Més Opcions kontsumo arduratsuen alde lan egiten duen kooperatibak lez, Aiaraldea Ekintzen Faktoria lagun dituen kooperatiben bazkide izatea nahi dute, horrela Faktoriako bazkide direnak gainontzeko ekonomatoetan erosi ahal izateko.

Sistema hegemoniko batean arduratsu jokatzeko zeharbidea izan nahi du Ekintzen Faktoriak, bizitzeko proiektu integral baten orube. “Sistema hau zulatuta dago, eta zulatzen gaitu. Guk alternatiba bat planteatzen dugu, pertsona eta komunitate bezala, suntsitzen gaituen sistema sozial eta ekonomikoaren aurrean biziko eta heziko gaituena. Eragiteko modu bat nahi dugu eta ekintzen bitartez egingo dugu guztia, euskaraz”, azaldu du Mendigurenek. Garaio, bestalde, esan du toki askotan demostratzen ari direla horrelako proiektuak “posible” direla: “Badago masa bat beste modu batean bizitzeko eredu bat sortzen ari dena. Ez da sistemarekin guztiz apurtzen, baina kalitatezko proiektuak egingo ditugu, noizbait hegemoniko bihurtu daitezkeenak”. ■

Ricardo Hernández Jiménez, Gaz Kaló ijitoen elkarteko koordinatzailea

“Erabakitze gaitasuna izan nahi dugu, gure ordeztu kanpotik erabaki ez dezaten”

Lehen pertsona idatzia dago artikulu hau. Ricardo Hernandez Jimenez eman diogu hitza, Nafarroako ijito elkarteak biltzen dituen Gaz Kaló Federazioko koordinatzaileari. Erakundea 2000. urtean sortu zen eta ordutik buru-belarri dihardu ijitoen kultura ezagutarazten eta estereotipoak hausteko lanean.



Eider Madina Berasategi

@xaukenaxauk

Ijitoek 500 urte baino gehiago daramatzagu lurralde honetan, baina jendar-tearen gehiengoarentzat ezezagunak gara. Nafarroako ijitoei buruz ezagutzen den lehen idatzia 1435. urtekoa da, Nafarroako Blanca erreginak ijitoei Erriberrin harrera egin zienekoa. Egun, 7.000 inguru bizi gara lurraldearen luze zabalean banatuta, eta pentsatzekoa den moduan, komunitate heterogeneoa gara. Hala ere, gure kultura eta errealitateak ez dira nahikoa ezagutzen; aurreiritzi, estereotipo eta uste txarrak gailendu dira.

Bazterkeriaz, diskriminazioz eta jazarpenez jositako historia da gurea; frankismoa amaitu arte ez dugu inolako babes juridikorik izan. Are, gure kontrako legeak urte luzez egon dira indarrean. 1549ko lege testu batek jasotzen du ijitoak aurkituz gero zigortu eta kanporatu egingen dituztela eta egoerak okerrera egin zuen XVII. mendean. Egun, eskubideak lortu ditugu eta legeek babesten gaituzte, baina sarritan, erreali-

tatean gauzak ez dira hain errazak, eta egunerokoan gure aurkako jarrerak pairatzen ditugu.

Nafarroan, Europar Batasun osoan oro har, arrazakeria eta xenofobia ikaragarria dago, eta jatorri ezberdinetako beste komunitateekin batera, diskriminazio egoera handienetakoa jasaten dugu guk. Bizitzaren arlo guztietan eragiten digu bazterketa horrek, eta horren adibide dira gure gazteen artean dugun eskola porrot larria, etxebizitza edo lana lortzeko zailtasunak edota ijitoa izan edo iruditzeagatik zenbait lekutan sarrera ukatzea.

Arrazakeria kasuen gorakada

Azkenaldian, Iruñean halako hainbat kasu ezagutu dugu. Alde Zaharreko taberna batzuetan atezainek ijito batzuei ez diete lokalean sartzen utzi, jabeek ijito etniako inori sartzen ez uzteko agindua emana dutelako. Gertaera horien berri izan bezain laster Sos Arrazakeria-kideekin eta Arartekoarekin batera

epaitegietara jo genuen eta kasuak aztertzen ari dira.

Gisa horretako gertaerak jazo ez daitezkeen legeen berrikusketa eskatzen dugu, leku publikoetan jatorri, etnia, erlijio, sexu, iritzi, identitate eta bestelako baldintza pertsonal edo sozialengatik inori sarrera ukatzea galarazteko. Aisialdirako lokalak leku irekiak dira, baina Nafarroako 2/1989 Foru Legearen barruan ezarritako 33/2011 Foru Dekretuak espazio hauetarako sarbidea eta bertako egonaldiak arautzen ditu eta horren berrikusketa da eskatzen duguna.

Gertaera horien harira, otsailean Iruñeko Udalak aho batez onartu zuen establezimenduetan sartzeko debekuen kontrako adierazpen instituzionala. Legea berrikusiko duela hitz eman du eta horrekin batera, inpunitaterako biderik egon ez dadin, biktimei eragindako kalteei erantzuteko neurriak hartzeko eta halakoak errepika ez daitezkeen saihesteko kontrol mekanismoak jartzeko konpromisoa hartu du.



Elkarlana giltzarri

Hori dela eta, gure kultura eta komunitatea hurbildu eta guri buruzko irudia hobetu asmoz, ijito eta ijito ez direnen arteko elkarlana eta elkar ezagutza sustatzen saiatzen gara hainbat egitasmoren bidez. Helburu horrekin sortu zen Gaz Kaló duela 18 urte, Nafarroako ijito elkartearen koordinazioa eraman, irizpideak bateratu eta gizarte eta administrazioaren arteko zubi lanak egiteko. Dagokigun lekua, protagonismoa eta erabakitze gaitasuna izan nahi dugu, guri dagozkigun kontuetan erdigunean egon eta subjektu aktibo izan, kanpotik gure ordez erabaki ez dezaten. Sarritan hitz egiten da gutaz, eta guretzako politika bereziak egiten dira, beraz, kalean egoteaz gain, erabakiak hartzen diren espazioetan ere egon nahi genuke.

Garbi dago gu garelako guri buruzko irudia hobetzeko lehen urratsa eman behar dugunak, eta horretan dihardugu; zentzu horretan, ijito herriak ematen duen aurrerapauso bakoita eta lortzen

Gaz Kaló elkartearen ordezkariek (eskuinean ageri da Ricardo Hernández), Nafarroako Parlamentuko presidentea Ainhoa Aznarezekin, 2017an. Aurten ere bilduko dira, hilaren 27an, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna erabakirik antolatutako egitasmoen barruan.

ARGAZKIA: NAFARROAKO PARLAMENTUA

duen onarpen zein eskubide bakoitza jendarte osoarentzat onuragarri izanen da. Eredu berean bizi diren kulturek bizikidetzeta eta errespetua behar dute eta horretarako guztion arteko lankidetzeta behar da, harremanak normalizatu aldera.

Ikuspegi globala eta gertukoa aldarrikatzen dugu, herriz herri lan egin, baina aldi berean ingurua ere kontuan izanik. Gaur gaurkoz, hamabi elkarte daude federatuta eta gure lan-ildo nagusiak gazteriaren eta emakumeen bideratu ditugu. Gazteak gure komunitatearen etorkizuna izanen direlako eta emakumeak ijito komunitatearen zutabe eta motor nagusiak direlako.

Komunitatearen motor

Emakume ijitoa kulturaren transmisioaren zutaina da, familia osoaren babeslea, eta aldi berean ekintzailea, betidanik atera izan baita kalera. Emakume ijitoen errealitatea islatzeko haien testigantzez osaturiko dokumental laburra ekoitzi zuen Helena Bayona Carlos kazetaritzak ikasleak Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren diru-laguntzarekin. Herriz herri proiektatzen ari gara *Mordiendo el aire*. *Kalis/Romis: emakume ijitoak berdintasunerako bidean* ikus-entzunezkoa eta oso kontent gaude izaten ari den harrerarekin; gainera, EHUKo Francisca de Aculodi saria irabazi berri du. Dibulgazio eta aitortzarako lan oso ederra da. Horrez gain, emakumeak oso ongi antolatzen ari dira, horren adibide da martxoaren 22, 23 eta 24an Bartzelonan egin zuten Emakume Ijitoen Nazioarteko II. Kongresua. Iruñetik 14 emakume joan ziren autobusez eta oso pozik itzuli ziren, ahalduz prozesuan arnagune baitira halako topaketak.

Martxoaren 8an ere kalera atera ziren herriz herri deituta zeuden mobilizazioetan parte hartzeri; eta aurtengoak izan duen indarra ikusita garbi dago norabide horretan erronka handia dugula egiteko gizarte gisa eta baita guk komunitate gisa ere. Oso itxaropentsua da. Gaz Kalón presidente-ordea emakumea den arren, koordinatzailea eta federazioaren irudia ni izan ohi naiz; baina datozen urteetan presidentetza aldatzeko asmoa dugu.

Eskola porrota

Federazioan asko kezkatzen gaituen gaia da hezkuntzarena. Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) kaleratutako azken datuen arabera, ijito gazteen %20k soilik amaitzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Gainera, 12 urtekoen artean, gazteen %60 soilik ari da ikasten bere adinari dagokion mailan. Eskola porrota eta absentismo-indizeak oso altuak dira eta horrek eragin handia du bizitzako arlo askotan, besteak beste, enplegu eremuan. Datuak oso kezgarriak dira eta beharrezko ikusten dugu familia, haur eta gazteei hezkuntzaren garrantzia azpimarratzea.

Aditu eta profesionalekin lanean ari gara arazo honi aurre egiteko eta hainbat proiektu abiatu ditugu. San Adrian-go Alfonso X El Sabio eskolan adibidez, eskola eragilearen figura txertatu da eskola barruan nahiz kanpoan, ikasle, irakasle, familia eta inguruaren arteko bitartekotza egiteko. Pozik gaude emaitza onak izaten ari delako, hiru urtean dezente jaitsi da eskola-absentismoa eta familien eta eskolaren arteko harremana ere asko hobetu da.

Bestalde, eskertuko genuke hezkuntza komunitatetik guri buruzko uste txarrak uxatzen lagunduko balitzaigu. Lurralde honetan bost mende baino gehiago eramanagatik, ikusezinak gara, eskoletako liburuetan ez gaituzte aipatzen; eta gutaz hitz egiten denean txarrerako izan ohi da. Haur eta gazte guztiekin estereotipo horiek hausten saiatu beharko genuke.

Ekimen ugari

Erakunde askorekin elkarlana eta indar metaketa bultzatzen saiatzen gara. Horregatik harreman handia dugu SOS Arrazakeria edota Pobrezia eta Giza Bazterkeriaren Aurkako eta Zurrumurruen Aurkako sareekin. Ez dugu soilik



Emakume ijitoak, arrazakeriaren aurkako manifestazio batean, Bartzelonan.

» “Martxoaren 8an kalera atera ziren emakume ijitoak. Aurtengoak izan duen indarra ikusita, argi dago norabide horretan erronka handia daukagula komunitate gisa”

» “Nafarroan bost mende eramanagatik, ikusezinak gara. Eskoletako testu liburuetan ez gaituzte aipatzen...”

ijitooi eragiten diguten aferetan parte hartu nahi, pertsona guztion ongizatearen alde baizik.

Ekimen asko dugu martxan, eta beste hainbeste babesten dugu. Berdintasunera bidean emakumeekin lan egiteaz gain, Acción Contra la Trata elkarteak iazko otsailean abiatutako “*Metachodemacho / Gizonkeriatik Gizontasunera*” kanpaina ere gure aletxo jarri genuen, gizonen rol eta pribilegioak iraunarazten dituen egungo maskulinitate eredu zalantzan jartzeko beharra ikusten dugulako. Uste dut ijitook ere hor egon behar dugula, asko baitugu ikasteko eta lantzeko.

Halaber, azken hilabete hauetan, Gaz Kaló, Sabicas Etxea eta Hezitzaille Eskolako Animazio Soziokulturaleko hainbat ikasleren elkarlanari esker Iruñea Calía

IJITO HERRIAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Apirila hilabete berezia da ijitoentzat, hilaren 8a Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna baita. Nafarroan ekimen ugari antolatu dute euren kultura ezagutarazi eta harremanak sortzeko, ez soilik hilaren 8an, hilabete osoan baizik. Pasa den ostiralean, esaterako, Chavorrós y Chavorrís elkarteak ijito gazteen topaketa antolatu zuen Burlatan, eta 27an Nafarroako Parlamentuak harrera egingen die Nafarroako ijitoen erakundeko kideei. Ekitaldi instituzional horretan, Javier Echeverría omenduko dute, San Ferminetan kiliki eta erraldoiak dantzarazten zituen “Txuntxuneroa” (1911n hil zen), eta ospakizunei amaiera emateko 13:00ean mokadutxoa eskainiko dute Iruñeko bihotzean ijitoen elkargune den Sabicas Etxean.

ezagutarazteko inizatiba turistikoa diseinatzen ari gara. Bestelako ibilbide turistiko bat sortu nahi dugu, kultura calfaren eta hiriko ijitoen begiradatik abiatuta. Iragan martxoaren 16an ibilbidearen lehen entsegua egin genuen hainbat erakundetako eledunek lagunduta eta oso ongi atera zen; gustukoa izan zuten eta epe motzean martxan jarri nahiko genuke. ■

DINASTIAK BATZEKO TRESNA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Iruñea, c. 848. Oneka Orti jaio zen, Iruñeko Orti I.a Gartzez *Begibakarra* erregearen eta Auria erreginaren alaba, Aritza leinukoa.

Haren berri Rodako Kodexak eta Al-Andaluseko historialarien kronikek jaso zuten, baina ezer gutxi adierazten dute bere izaeraz eta, hala, Oneka bere ezkontzek izan zuten eragin politikoa-rengatik da nagusiki ezaguna.

Orti Gartzez aita 860. urtean atzeman zuten musulmanek Muhammad I.a Kordobako emirra buru zuen espedizio batean. Kordobara eraman zuten eta han eman zituen hurrengo bi hamarkadak, urrezko kaiolan preso. Luxuzko gatibualdi luzean Oneka alaba izan zuen lagun; ez dakigu aitarekin batera harrapatu zuten edo gerora bidali zuten emirraren gortera, baina handik bi urtera Oneka nerabea emirraren seme Abdullahrekin ezkondu zen –edo ezkondu zuten–. Esklabo kristauen eta agintari musulmanen arteko ohaidetzak ohi-koak ziren; duela bi urte, atal honetara bertara, kalifaren kutun bihurtu zen Subh esklabo baskoiaren kasua ekarri genuen. Baina errege familia kristau eta musulmanen arteko ezkontza bakarretakoa izan zen hura. Gainera, Omeia eta Aritza dinastiak batu zituen ezkontzak eta horrek bide eman zion Iberiar



THEODORE CHASSERIAU / CHRONICON ALBELDENSE

Ezkerrean, Abd ar Rahman III.a (891-961) eta, eskuinean, Antso Abarka (938-994). Bien arteko familia lotura Oneka Orti (c. 848-c. 890) printzesa baskoia zen; Kordobako lehen kalifa Onekaren biloba zen eta Iruñeko erregea, aldiz, haren birbiloba.

penintsulako bi erresuma nagusien arteko kolaborazioari.

Onekak hiru seme-alaba izan zituen. Muhammad semea tronua oinarritzeko izendatu zuten, baina 891n hil zuten eta, azkenean, Abd ar Rahman Onekaren bilobak lortuko zuen postua.

Baina hori baino lehen, 882an, Oneka Iruñera itzuli zen aitarekin, seme-alabak atzean utzita. Berehala bere lehen-gusu Azeari Antso Larraungoarekin ezkondu zen/zuten, eta harekin ere hiru seme-alaba izan zituen. Tota eta Antsa alabak Semeno leinuko kideekin ezkonduko ziren eta hala, Nafarroako

Aritza eta Semeno dinastiek bat egin zuten.

Rodako Kodexak kronologia hori guztia zalantzan jartzen du; Oneka lehena go jaio zela dio, lehen ezkontza Azeari Antsoarekin izan zela eta gero ezkondu zela Abdullahrekin. Baina faktoreen ordenak ez du produktua aldatzen: hari esker hiru leinuek bat egin zuten.

Hurrengo mendean, Kordobara esklabo ohaide gisa iritsitako Subhek gerora eragin handia izango zuen, praktikan erregeordetza lanak eginez. Oneka printzesa, ordea, tresna hutsa izan zen. Hori bai, oso tresna eraginkorra. ■



IAN CARTWRIGHT

88.000 urteko hatz zati baten garrantzia

El Nefud basamortuan (Saudi Arabia), Al Wusta izeneko aztarnategian, *Homo Sapiens* espeziearen hatz fosilizatu bat aurkitu dute eta, uranio serieen bidez, Max Planck Giza Historiaren Zientzia Institutuak 88.000 urtetan datatu du. *Nature Ecology & Evolution* aldizkarian jakinarazi dituzte ikerketaren emaitzak: Arabiako penintsulan aurkitutako gure

espezieko lehen arrastoa da eta Afrika nahiz Mediterraneo ekialdetik kanpo aurkitu den *Homo Sapiens* hezurrik zaharrena. Hatz baten erdiko falangea besterik ez da, 3 cm inguruko pieza, baina berak bakarrik adierazten du gure espeziearen lehen dispersioa, Afrikatik Eurasiara hedatzeko prozesua, orain arte uste baino zabalagoa izan zela. ■

Kurka-kurka



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Laboreekin egiten diren ardoetara itzuliz, ezker-aihenaren (*Humulus lupulus*) kontserbatzaile eta dasta mikatzaren eransle dute. Laboreak eta ezker-aihenaren uztartzeak makina bat zurrustada gozo sortua du, kurka-kurka, batik bat garagardoaren herrialdeetan. Lagun batek azaldu berri dizkit Belgikan egiten den Lambic gari-garagardoaren istorioak, eta arreta piztu dit.

Gari arrunta (*Triticum aestivum*) eta garagarra (*Hordeum vulgare*), bi labore horiekin egiten den ardo ezagunenetakoa da Lambic delako hori: %30-50 gari arrunta (*Triticum aestivum*) eta gainontzeko %50-70 garagarra (*Hordeum vulgare*). Osagaiez gain, batez ere bere bi ezaugarri deigarri zaizkit: iraunkortasuna eta mikatzasuna izan dezan, bizpahiru urtez zahartutako ezker-aihenarekin egiten da, eta ez diote legami jakin bat eransten, hartzidura naturala egiten uzten diote, eta inguruan duen edozein legami eta bakterio eraso eta hartziaraz dezake. Mahats, sagar edo udare ardoe-



kin gertatzen den era berean. Hartzitze-ko era horrek aparteko dasta ematen dio: ardoaren eta sagardoaren punttua, lehorra eta kutsu garratzekoa.

Gari-garagardo hori egiteko laboreen murtia gau batez ontzi zabaletan hozten uzten da. Gero zurezko barriketan hartzitzen utziko da. Airetan hozteak eta zurak aparteko legamiak eta bakterioak eranstean dizkio. Laurogeitik gora; tartean, oso ezaguna den *Brettanomyces bruxellensis*. Uda partean ez dute egiten, egokiak ez diren mikroorganismoek eraso ez diezaioten.

Ezker-aihenaren ugari erabili izan da iraunarazle aparta baita. Bakterioei au-

rre egiteko, litroko 8-9 gramo arte gehitu izan zaio. Horrek ematen dion dasta mikatza apaltzeko, ezker-aihenaren zahartua baliatzen dute, mikatzasuna eta dasta nabarmen arinduak dituen.

Lambic gari-garagardo tradizionala egiteko, aurrez, Porto, Xerez edo ardo arrunta egin duten haritzeko (*Quercus robur*) edo gaztainazko (*Castanea sativa*) ontzietan, hiru urte ere egon daiteke hartzitzen.

Urte bakoitietan, "Toer de Geuze" deituriko ibilaldi gidatua egiten dute Pajottenlanden ardo mota hau egiten duten upategiak bisitatuz... Ezkerrez aurrera, dastazaun! ■



943 64 17 10

www.endanea.com

Jaitzubia 40, Hondarribia

Usain eta zaporeak

Landa itzazu sukalderako landareak eta gozatu kolore eta zapore berriez zure plateretan.



IRUÑEA

Hiriko lore eta landareen zientzia lantegia



Garazi Zabaleta

@tirikitrann

ARGAZKIA: IRUÑEKO INGURUMEN MUSEOA



“Badirudi hiria ez dela leku aproposa landaredia ikusteko eta horren inguruan ikasteko, baina berez bada. Iruñeak, gainera, guner berde asko ditu, horietako zenbait gizakiak kudeatu eta maneiatuak, baina badira beste zenbait txikiak izanik ere oso interesgarriak eta erakargarriak direnak”. Iosu Alfaro Vergarechea Iruñeko Ingurumen Heziketako Museoko kidearen hitzak dira. Hiriko lore eta landareei buruzko herritarren zientzia lantegia eginen dute apirilean zehar, lau saiotan.

Herritarrek botanikara hurbiltzen

Hiriko eta inguruko landareak, loreak, zuhaixkak eta zuhaitzak ezagutaraztea da lantegiaren helburuetako bat, baita jendeari zientziarako hastapenak ematea ere. “Lehen saioan landareen behaketak jasotzeko aplikazioak ezagutuko ditugu, eta interneteko web orrietan

nola mugitu eta erremintak nola erabili ikasiko da”, azaldu digu museoko kideak. Hurrengo hiru saioetan landareen ezaugarriak eta hirian topatu daitezkeenak nola identifikatu ikasiko dute parte hartzaileek, eta irteera eginen dute Aranzadi parkera ikasitako guztia praktikan jartzeko.

Iruñeko Udaleko ingurumen boluntario taldeari erremintak emateko asmoz antolatu zuten lantegia, baina hiritargoiari ere irekia egotea interesgarria zela iruditu zitzaenez, edonork har dezake parte jardunaldietan, eta doakoak dira jarduerak guztiak. “Aurreko hiruhilekoan antzeko saioak egin genituen hegaztien inguruan, eta arrakasta handia izan zuten, plaza guztiak bete ziren”.

Guner berdeak, hiriaren birika

Natura ezagutzeko hirietatik landa eremuetara mugitzen da jendea, Alfaro-

ren ustez, askok ez dakielako hirietan ere badagoela bioaniztasuna. “Badirudi kotxea hartu behar dugula natura ezagutzeko, eta hori ez da derrigorrezkoa. Hemen zortekoak gara guner berde asko ditugulako. Horiek ere izan daitezke natura ezagutzeko modu bat, eta modu ekologikoa, gainera”.

Adibide hau jarri du Alfaro: “Jende askok ez daki Iruñean orkideak badaudela, parkeetan, medianetan eta errotondetan. Horiek ez dira gizakiak landatutakoak, antzinako basoetatik, larrereetatik geratzen zaizkigun arrastoak dira, bizirik dirautenak”. Hiriaren beste geruza bat, haren sustraiak, ezagutzeko aukera ematen dute landare horiek museoko kidearen ustez. Landare horiek mapeatzen eta kudeatzen ikastea izanen da lantegiaren erronketako bat, landareok etorkizunean kontserbatzea errazagoa izan dadin. ■

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



azoka

Gure Errepublikan eman eta hartuz, denok ongi bizi gaitzen elkar zaintzen dugu. Sartu Azokan eta ikusi ARGIA Jendeak komunitateari musutruk eman dizkion gaiak. Oraindik ez bazara ARGIAkoa, oraintxu duzu egiteko aukera.

Dagoeneko erabiltzen ez dituzun gauzak, edo norberak etxean, lanean, militantzian egindakoak ARGIA Jendeari emateko aukera dugu. ARGIAko komunitatearen arteko harremanak bultzatuko ditugu horrela. Indartu dezagun indartzen gaituena! Twitterrez jarraitzeko: @argiaAzoka

www.argia.eus/azoka

"BIZITZA BARATZEA DA" KAMISETA

Ainara Azpiazu "Axi"ren marrazkiak jantziriko kamiseta txuria. Umore handiz, ARGIAren eta Bizi Baratzea proiektuaren bizi-filosofia islatzen duena.

Neurriak:

• Estua:

L (60 cm luze x 45 cm zabal)
XL (61 x 47); XXL (63 x 50)

• Zabala:

L (71 x 54)
XL (75 x 56)
XXL (75 x 58)



ARGIA
Jendearentzat
musutruk

ARGIA Jendearentzat musutruk diren beste gai batzuk:



San Telmo museorako sarrera

Euskal Herriko museorik zaharrena. Egun berrieta eta Euskal Gizartearen eta Herritarren Museo bihurtua.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Txapelketa zaharretako bertso onenen bilduma

Euskal Herrikoa, Araba-Bizkaikoa, Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Zeruko ARGIA sutondoan lamina

Juan Bautista Larreak Oiartzabal sendiari Andoaingo Istituitza-Txiki baserrian ateratako argazkia. Neurria: 70 cm x 52 cm.

ARGIA Jendearentzat musutruk



ARGIA ASTEKARIA

Zuriek azal beltza aukeratu dute



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Gogoan du umea zela (ez dakit zein arrazoiengatik ibiliko zen egun hartan haurra ARGIAko bulegoetan) orduan astekariaren azalak prestatzen zituen Garbiñe Ubedak galdetu ziola bi argazkitatik zein zuen gustukoaren, portadarako zela eta aukeratzen utziko ziola. Neska txiki hark gehien liluratu zuen irudia adierazi zion hatzez kazetariari. Sekula ez du jakin berak aukeratutako argazkia jarri ote zuten azalean, benetan ari ote zen emakume hura; baina barru-barruan badu poz txiki bat, behinola ARGIAren azala berak aukeratu izanarena.

Neskato hark ez du inoiz gehiago al-dizkariaren lehen orriko argazkirik aukeratu, baina aste honetakoaren aukeraketa berezia izan da, argudio askoz betea, eta ARGIAko lantaldeak esplikatu egin dio zergatia.

Erredakzio bileran, lehian bi aukera (biak Dani Blancoren argazkiak): alde batean Lluís Llach kantautore kataluniarri egindako elkarrizketari lotutakoa: Herrialde Katalanetako kantagintza berriaren figura garrantzitsuena agian, Junts pel Sí-rekin diputatua izan dena,

Kataluniako egoera pil-pilean dagoen aste batean... Beste aldean Bilboko kale-saltzaileek bizi duten egoerari buruzko erreportaje baten eskutik etorritakoa: gure herrian bizitzeko arazo ugariaren artean azkena, irabazten dutena baino gehiago kotizatzea eskatzen dietela, osterantzean paperik gabe utziko dituztelako. Baina antolatuta daude, eta euren lana legeztatze eta ahalik eta baldintza onenak lortzeko lanean ari dira.

Ikusi duzu noren aldera egin duen azkenean balantzak, ezta irakurle?

Arrazoiak: ARGIAri publikoki proiektatzen duen "gutasuna"ren inguruan gogoeta egitea dagokio. Egiten dituen erreportajeetan, artikuluetan, azalean... nolakoak dira agertzen diren "gu" horiek? Euskal jendarteko errealtatearen ispilu al da? ARGIAren lehen orrian gutxitan ikusi dugu zuria ez den inor, eta hor arrazoi bat. Hedabide handietan ikusezinak diren kolektibo, gai eta gatazkei protagonismoa ematea ere bada proiektu komunikatibo honen xedea, baina hurbilen tokatzen diren gaiak landuta erosotasunean geratu eta urrunagokoak alde batera uzteko arriskua ere badu horrek. Kasu honetan ere, balantza Bilbora, urrutiago tokatzen den ertz delat ulertuta, gutxi landu dugun afera, eta ARGIAk gertuago izan nahi duen kolektiboa. ■

Sarean arrantzatuak

birasuegi #ESE #Koop

@birasuegi

Zergatik naizen Argia Jendea? Ba adibidez aste honetan Oscar Garcia Jurado burkidea irakurri dezakedalako kooperatibismo eraldatzaileaz zehatz erantzuten, Urko Apaolazaren ARGIAko elkarrizketan [izugarria!].

Adi! #ustelkeriaSTOP

@adielkarteari

Madriilen Gipuzkoako erraustegia bide legal-instituzionaletik gelditzen saiatzeagatik, zergatik epaituko dituzten irakurri hemen:



Oihana Bartra

@OihanaBartra

Honi ez zaio mafia deitzen? Beldurgarria! Animoak gaur Intxaurrandieta eta Errazkini.

Zuloan liburuaren aurkezpen hitzaldiak



Jendetza bildu zen Donostiako Antigua auzoko Txantxerreka gaztetxean, Urko Apaolazaren hitzaldia entzuten.

Hurrengo hitzaldia: Apirilaren 19an, Iruñean, 19:30ean Karrikiri elkarte.

Maria Arnal

“Diskurtso baten bidez azaldu ezin dena komunikatzeko balio du musikak”

Gezurra badirudi ere, ez dira urte asko itzultzaile lana utzi eta kantatzen ikastea erabaki zuela. Marcel Bagés eta bere gitarra lagun, *45 cerebros y un corazón* LP txalotu bezain saritua kaleratu zuen iaz. Bira etengabea ari dira geroztik. Leioan eskaini duten kontzertuaren aurretik elkartu gara solasaldirako.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Marcel Bagés soinu probak egiten utzita etorri da hitzordua jarrita genuen to-kira Maria Arnal abeslari kataluniarra. Nekatuta dagoela esan digu, baina elkar-rrizketa hasi orduko, bizi-bizi nabaritu dugu guk. Ez da badaezpada isilik gera-tzen den horietakoa.

Memoria da disko osoa lotzen duen ha-rietako bat, baina hala ere, azpimarratu izan duzu ez dela memoria historikoari buruzko lana.

Musika tradizionalari ikuspegi nostal-giko eta erromantikotik begiratzen zaio askotan. Guk ez dugu horretan geratu nahi izan. Fonoteka digitalizatutako ar-txiboekin eta landa-grabaketekin egin dugu lan, baina museotik atera nahi izan ditugu abesti horiek, gaur egunera, eta batez ere, gurera ekarrita, erabilgarriak izan daitezen. Ezaugarri bereziko abes-tiak dira, egile indibidualik gabeak, eta horrek baimendu digu nahi beste mol-datu eta egokitzea. Egin ditugun abesti guztietan badago memoriara gaur egu-netik hurbiltzeko modu konplexu eta pertsonal bat. Hori oso argi adierazten

du diskoaren izenburuak berak: “45 burmuin eta bihotz bat”. Duela hiru urte hobi batean momifikatuta aurkitu zituz-ten gorpuez hitz egiten du. Baina gure-tzat, horretaz hitz egitea ez da memoria historikoa lantzea, orainaldiari kritikoki begiratzea baizik.

Ez da ohikoa gai horri heltzea...

Badago Trantsizio garaitik datorren kontakizun bat dioena zauriei utzi behar zaiela ixten, ez dela atzera be-giratu behar... Horren guztiaren ondo-ria dira Europako alderdirik ustelena gobernuan egotea, gaur egungo zentsu-ra, eskubide-urraketak... Eta okerre-na da, orokortzen eta normalizatzen ari direla urraketa horiek. Halako gaiez ez hitz egitea, edo musikatik kanpoko gaietan ez busti nahi izatea ez dator bat gure proiektuarekin. Gure lana edo proposamena ez da abesti zerrenda baten interpretazioa soilik. Guretzat, orainaldia ulertzeko begirada zabal-tzen duen zerbait da musika. Diskurtso baten bidez azaldu ezin direnak komu-nikatzeko balio du.





*Marcel Bagés
eta Maria Arnal
momentu onean
daude: argitaratu
duten lehenbiziko
diskoarekin ezusteko
oihartzuna lortu dute.*

Zentsura aipatu duzu. Horrek auto-zentsura ere badakar hainbat artistarengan. Zuen kasuan ordea, ez dirudi hala denik. Proiektu musikalaren aitzakian, toki askorik izaten ez duten gaiak eraman dituzue hedabideetara.

Nik asko errespetatzen dut sortzaile bakoitzaren hautua; egin dezala norberak nahi duena. Baina hori esanda, ni bide honetan kokatzen naiz, musikari eta artista gisa nire interesa hori delako: kontzeptu eta emozio batzuen bidez eragitea, posible den neurrian, errealitatea eraldatzeko. Ahaztu egiten bazaigu ere, errealitatea denon artean eraikitzen dugu.

Nostalgikoek garai bateko protesta abeslarien oinordekotzat hartu zaituztete. Eroso zaude horrekin?

Protesta-abestien etiketa jarri digute, bai, baina uste dut aurreiritzietan oinarritutako etiketa horiek ez dutela mesederik egiten. Oso pentsamendu mugatzailea dago etiketen premia horren atzean. Askoz interesgarriagoa eta aberasgarriagoa da deskribapen horien mugetan aritzea, errealitatea konplexua eta irekia delako. Ikuspegi kritiko batekin egindako musika mendebaldeko momentu historiko jakin batekin lotzen da; espainiar estatuko "protesta" abestiak, adibidez, Trantsizioarekin lotzen dira, kantautoreekin, gitarrarekin... Baina gaur egun, hip-hop-ak adibidez, antzeko funtzioa du: orainari begiratzeko dio modu kritikoan, eta zalantzan jartzen ditu botere egiturak eta pribilegioak. Ez nuke esango ikuspegi kritiko batetik egindako musika desagertu denik, beste forma batzuk hartu dituela baizik.

Niño de Elche musikariak sorkuntzaren indar eraldatzailea edukietan baino, egiteko moduetan dagoela aldarrikatzen du. Bat zatoz?

Bai, noski. Feminismotik ikasi dugu pertsonala eta intimoa dena ere eraldaketa espazioa dela. Gure proiektuaren oinarrian zaintza dago. Ez bagenu elkar zainduko, daukagun talde txikiarekin eta hain bira luzearekin, ez litzake jasangarria izango. Egiteko moduetan ere ahalegintzen gara beti zintzotasunez jokatzeko, ezkutuko kalkulurik gabe. Kontraesanez ere ez diegu beldurrik: proiektua asko hazi da eta gure bizitza eraldatu du, ez gaude hasi ginen leku be-

rean. Saihestezina da momentu batzuetan ikustea gauza batzuk ez datozela bat hasieran egiten zenuenarekin, baina horregatik da garrantzitsua zure buruarekin eta besteekin zintzoa izatea.

Asko galdetzen dizute kontraesanengatik, halako proposamen batek arrakasta izatea susmagarria balitz bezala...

Purutasuna ez da existitzen. Guk landu dugun musika tradizionala bera ere gauza askoren nahasketa da. Bizitza errealean ere joko horretan gabiltza, elementu askoren arteko orekan, Europarrak gara, zuriak, pribilegioz josiak... Kontraesanak gurekin izan ditugu abiapuntutik bertatik. Garrantzitsuak eta zintzoak iruditzen zaizkigun gauzak esaten ditugu. Zenbat eta jende gehiagok konektatu horrekin, orduan eta hobeto.

Jendea ez da duen indarraz ohartzten. Hala dio zuen abestietako batek.

Joan Brossa-ren poema bat da, esaldi hori behin eta berriz errepikatuz hasten dena. Asko gustatzen zait esaldia, eta ez soilik ikuspegi kolektibotik begiratuta, baita indibidualetik ere. Denok dugu gure barruan gu geu boikotatu eta ahultzen duen ahots bat. Niño de Elche dioen moduan, barruan dudak kapitalistaren kontra borrokatzen dut nik. Norberak bere buruarengan konfiantza izatea garrantzitsua da, konfiantza hori kolektibora ere eraman ahal izateko. Zuzenekoetan, inflexio puntua izaten da abestia hau.

Maila pertsonalean, afizioa zena ofizio bihurtu duzu, eta gauza asko aldatuko zituen horrek. Oraintxe sienta bat egiteko premia aipatu diguzu, baina hemen egon behar, elkarrizketa egiten...

Askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait elkarrizketa sienta egitea baino. Benetan sinestezina da gertatu zaiguna, oso zorioneko eta esker oneko sentitzen naiz, etengabeko salbuespen egoera batean banengo bezala. Zaila da horrelako zerbait gertatzea. Lagun asko ditut, neskak gehienak, sekulako talentua dutenak eta etengabe beren buruari balioa kentzen diotenak. Ni itzultzaile lanetan nembile-



» “Guretzat, hobietatik ateratzen dituzten gorpuez hitz egitea ez da memoria historikoa lantzea, orainaldiari kritikoki begiratzea baizik”

» “Ikuspegi kritiko batetik egindako musika ez da desagertu, beste forma batzuk hartu ditu”

» “Purutasuna ez da existitzen eta guk kontraesanak gurekin izan ditugu abiapuntutik”

nean ere ez nuen uste ondo abesten nuenik, eta begira non nagoen orain. Nahi nuke nire bide honek balio izatea haientzat ere, ikus dezaten posible izan daitekeela. Nahikoa boikotatzen gaituzte bestela ere, ez dezagun guk gure burua boikotatu.

Zer da *Compartir Dóna Gustet*, eta zenbateko eragina izan du zuengan?

Kolektibo bat da, ahozko tradizioko musika eta sareko lizentzia libreak lotu dituen hainbat proiekturen bidez. Bertan lanean aritu nintzen ni, hedabideekin harremana eta komunikazioa jorratzen. Kolektiboa bultzatzen duen pertsona Marc Sempere da, eta berak jarri gintuen Marcel eta biok harremanetan. Proba egin genuen, eta gaur arte iritsi gara batera. Eragin handia izan du, beraz. Asko ikasi genuen bertan *Creative Commons* lizentziaz, eta gure lanak ere lizentzia horrekin

eman ditugu argitara.

Denbora asko da bira hasi zenutela. Bazuze sortzeko tarterik?

Zaila da, baina ezinbestekoa. Birak urtebete iraun behar zuen, baina izan duen arrakasta ikusita, luzatu behar izan dugu. Baina ez genuen sentitu nahi aspaldi sortutako zerbait errepikatzen ari ginenik. Horregatik birpentsatu dugu zuzenekoak, orain egiteko gogoia dugunaren antza handiagoa izan dezan.

Bigarren diskoari begira bide berriak urratzeko asmoa omen duzue.

Gure prozesua eta lan guztia batzen duena esperimintatzeko grina da. Hasieran horretarako abiapuntua landa grabaketak izan ziren, besteak beste abesti horiekin hasi nintzelako ni kantuan ikasten. Bide hori asko landu dugu, eta guran dago nolabait. Baina aldi berean, hogeita hamar urte inguru ditugu, musika asko entzuten dugu eta badugu beste bide batzuk lantzeko gogoia ere. Zerbait elektronikoagoa nahi dugu egin, baina beti ere soinu eta oinarri horiek gure instrumentu propioekin sortuz. Horretan gabiltza orain. ■



John McEnroe tenislariaren mugimenduak, keinuak eta begiradak baliatzen ditu 'L'empire de la perfection' dokumentalak.

Artxiboetatik abiatutako filmak

2018ko Berlinalen

Historia berrikusten

"Zinemak gezurrak esan ditzake, kirolak ez". Hauxe da Julien Faraut zuzendari frantsesaren *L'empire de la perfection* (2018) pelikularen ardatza. Ideia Godarden elkarrizketa batetik dator: "Giza gorputzak gezurrik esan gabe jarraitzen duelako ikusten dut oraindik kirola. Politikak, zinemak eta literaturak gezurrak esan ditzakete, kirolak ordea, ez". *L'Équipe* kirol aldizkarian aurkitutako hitz hauek bihurtu zituen bere pelikularen oinarri Farautek. Kasu honetan, *gezurrik esan gabe jarraitzen* duen gorputza John McEnroe tenislariarena da. Garai hartako jokalaria onena ikusiko dugu koloretako 16mm-tan 1984. urtean. Ikusi edo, hobeto esan, berrikusi.



Lur Olaizola
@lur_olaizola

Pelikula hau joan den otsaileko Berlinale zinemaldiko Forum sailean estreinatu zen eta zinema aretoa ia zutik jarri zen Parisko lur gorrian McEnroe-ren tantoak ikustean. Ikustean edo, hobe esanda, berrikustean. Farauten saiakera zinematografikoak hainbat lotura proposatzen ditu zinemaren eta tenisaren artean: mugimendua eta denbora; tenislari eta fikziozko pertsonaia baten antzekotasuna; edo jokalaria batek pistetan drama eraikitzeak daukan boterea. Badirudi Tom Hulse aktorea McEnroerengan oinarritu zela Milos Formanen *Amadeus* prestatzeko eta Serge Daneyk, itzal handiko zinema kritikariak, hamar urtez idatzi zituela tenis kronikak *Libération* egunkarirako. Izan ere, Daneyren idatzi batek jasotzen duen gertaera aurkituko dugu *L'empire de la perfection* pelikulan ere: 1984. urteko ekainaren Sean Roland Garrosen parte hartzen ari ziren tenislariak kexatu ziren kamerek eta argazkilarien flashek egiten zuten zarataz. McEnroeren kasuan, ez zen berria medioekin iskanbila sortzea: "Bezperan telebista kamera baten kontra jaurti zuen pilota eta begirada batez birrindu zituen garabi baten gainean munduan bakarrik zeudelakoan ozen hitz egiten ari ziren bi teknikari", azaltzen du Daneyk. Begiratu funditzaile hau Farauten pelikulan ikus dezakegu. Ikusi edo, hobeto esan, berrikusi. Zuzendariak hamabost urte eman zituen Frantziako Kirok Institutu Nazionalan lanean eta bertan Gil de Kermadec dokumentalgilearen irudiak aurkitu zituen. Artxibo irudiak. Kermadec-ek tenisa irakasteko filmak egiten zituen eta McEnroe-ren jokatzeko erarekin hain obsesionatuta zegoen, tenislaria behin eta berriro filmatu zuela. Ez zituen tenis partidak filmatzen, tenislaria bakarrik filmatzen zuen: ezkerraz eginiko sakeak, hanken eta besoen mugimenduak, arbitroekin eztabaidak, bai eta Kermadec-en Arri SR kamerak egiten zuten zaratari botatako begirada birrintzaileak ere. Iraganeko keinuen artxibo irudiak.

Waldheim ez! Waldheim ez! Waldheim bai!

L'empire de la perfection ez da izan aurtengo Berlinaleko Forum sailean ikusi diren filmen artean artxibo irudiekin egindako pelikula bakarra. Izan ere, dokumental onenaren saria Ruth Beckerman austriarrari eman diote *Waldheims*



Walzer filmagatik. Proposamen honetan ere, 80ko hamarkadako artxibo irudiak ditugu baina, kasu honetan, zuzendariak berrikustarazten dizkigun keinuak Kurt Waldheimenak dira, Austriako presidente oiharenak: "Kurt Waldheim eta bere begitarte sorra. Bere eskuak oroitzen ditut, bere irribarrea eta lehen andrea izango zenaren perlak. Armonia aldarrikatzen zuen apaiz keinuak eginez. Telebista frantsesa ere obsesionatuta zegoen bere eskuekin. Austriako jendea besarkatu nahi zuela zirudien, liluratu".

Artxibo irudi hauek beste berezitasun bat daukate, batzuk Beckermanek berak filmatu baitzituen. 1986. urtea zen, Waldheim bere burua aurkeztu zuen Austriako presidente izateko eta Beckerman hautagaiaren aurkako mugimenduko aktibista zen. Protestak eta manifestazioak hasi ziren Kurt Waldheim, 1972tik 1981ra Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusia izan zen Waldheim bera, nazien kolaboratzailea izan zela frogatzen zuten dokumentu eta irudi batzuk argitaratu zirenean. Hautagaiak behin eta berriro ukatu zuen eta eman zuen erantzun bakarra ezezko biribila izan zen. Dirudieenez, politikarien gorputzak badira gauza gezurrak esateko. Aurtengo Berlinalean aurkezturiko filmak zuzendariaren artxibo pertsonala nahasten du artxibo kolektiboarekin, nazioarteko medioek 1986. urteko martxotik ekainera bitartean egin zuten kasuaren jarraipena ere erakutsiz. *Waldheims Walzer*-ek mun-

taketa bizkor eta askotan umoretsu baten bitartez, herrialde baten historia eta memoria birpasatzera gonbidatzen gaitu. Iraganeko aztarnei jarraituz, iraganeko irudiak berriro ikusiz, egungo Austria neofaxista sortzen joango da gure begien aurrean. Azken finean, 1986. urteko ekainaren 8an hauteskundeak irabazi zituen Waldheim eta Beckermanen panoramika bikain batek erakusten duen bezala: "Waldheim ez! Waldheim ez! Waldheim ez!" garrasi egiten duten manifestariekin hasten den plano luzea, "Waldheim bai!" esaten duen gizon batekin bukatuko da. Iraganeko irudiek oraina ikustarazteko ahalmena daukate.

Boto txartel horia ala berdea?

Ruth Beckermanek plano hori filmatu zuen urte berean, Kristina Konrad Uruguaiako kaleetara atera zen María Barhoumekin batera, U-matic kamera batekin jendeari bakea zer zen galdetzeraz. "Zer da bakea zuretzat?". Hamabi urteko diktaduraren ondoren (1973-1985), 1986. urtean amnistia lege berri bat ezarri zuten Uruguain. Hori zela eta, diktaduran parte hartu zuten eta giza eskubideen aurkako krimenak egin zituzten militarrek inolako zigorrarik gabe gelditu ziren, inpunitatea eman zieten eta. Herritar batzuen haserreak eta mobilizazioek lortu zuten erreferendum bat egin zedin. "Zer da bakea zuretzat? Eta justizia?". *Unas preguntas* pelikula ere estreinatu da aurtengo Berlinaleko Forum sailean. Pelikula ikaragarria



da. Izugarrizko dokumentu historikoa. Legea ezarri zutenetik 1989. urtean erreferenduma egin zen arte Konrad eta Barhoumek filmatutako irudi guztiak ikusiko ditugu, gordinean, garai-ko kanpaina politikoeekin tartekatuta. Lau ordutan Uruguai zeharkatuko dugu: landatik hirira, auzorik aberatsenetik behartsuenera. Klase, arraza, genero eta adin guztietako pertsonak ikusiko ditugu kameraren aurrean hizketan. “Zer da bakea zuretzat?”. Eta hain erraza dirudien galderak ez die gorputz horiei gezurrik esaten utziko. Elkarrizketa trebe batzuetan zalantzak ziurtasun bilakatzeko ikusiko ditugu, gorputz iheskorrak geldirik gelditzen eta errespetua eragiten. Elkarrizketa trebe hauetan mina, manipulazioa eta mendekua ikusiko ditugu, Montoneroak eta desagertuak, historia eta memoria. Ikusi edo, hobeto esan, berrikusi. Eta bukaeran beste zerbait ikusiko dugu, beste zerbait berrikusiko dugu: 1989. urteko apirilaren 16ko erreferendumaren derrigorrezko botazioan hori koloreko boto txartelek berdeei irabazi zieten, amnistia legea onartuz eta Uruguairi hamabi urteko diktaduraren errepasoa ukatuz.

Zorionez, Kristina Konradek, irudi hauek filmatzen hasi eta 32 urte geroago, *Unas preguntas* pelikula egin du Uruguai-ko historia bere erara birpasatuz eta ikusgai eginez. Eskerrak orain dela 32 urte filmatu zituen irudi horiek ez zirela galdu, ezabatu, usteldu, desagertu; irudien desagertuarekin batera,

Austriako eta Uruguai-ko iragan politikoa berrikusteko aukera eskaini dute aurtengo Berlinalean ikusi diren ‘Waldheims Walzer’ eta ‘Unas preguntas’ filmek.

herrialde oso baten historiaren zati bat desagertu zitekeen eta. Hona hemen artxiboaren garrantzia eta artxibozainen berebiziko ardura. Herrialde baten memoriaren, irudien eta soinuen zaindari, babesle, eragile. Ogibide liluragarria eta boteretsua da benetan.

Gurera etorrita, pozgarria da egun, artxiboen prekarizazio eta utzikeria garaietan, Elías Querejeta Zine Eskolak eskaintzen duen graduondoko bat Artxiboa izatea. Dudarik gabe, erresistentzia keinu bat da. Datorren urtean taldea osatuko duten hamabost ikasleek irudiak eta soinuk zaharbertzen ikasiko dute, materiala aztertzen, proiektatzen, gordetzen. Batek daki haietako nork egin nahiko ote duen artxibo pelikula bat. Agian, hilabete honetan 40. urteurrena ospatzen duen Euskadiko Filmategiak ikasle horri gordeta daukan materialen batekin lan egiten utziko dio. Edo agian, EITB-ren artxiboan murgiltzeko aukera izango du. Nork daki. Agian datorren urteko Berlinaleko Forum sailean hemengo artxibo irudiekin egindako pelikula bat ikusteko aukera izango dugu. Horrela bada, hemengo historia ikusiko dugu. Ikusi edo, hobeto esan, behingoz, berrikusi. ■

» Artxibo irudiekin egindako zenbait filmek arreta deitu dute Berlingo zine jaialdiko Forum sailean, tartean dokumental onenaren saria irabazi duen *Waldheims Walzer*

» “Zer da bakea zuretzat?” galdetuz, Uruguai zeharkatu zuten Kristina Konradek eta María Barhoumek diktadura bukatu zenean. 32 urte geroago berreskuratu dituzte irudiak, herrialde baten memoriari ekarpena eginez

» John McEnroe tenislariak begirada birrintzailea botatzen dio kamerari. Ez du gustuko tresnaren zarata, partidua jokatzen ari den bitartean. *L’empire de la perfection*-ek haren keinuen artxiboa eskaintzen digu

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Gerrako kronikak Nafarroan



Amaia Serrano Mariezkurrena

Euskal eleberriaren historian maiz agertzen da 36ko Gerra, hainbat estetika ezberdinen bidez. Gutxi dira, ordea, ga(ra)i hau jorratzeko eleberri historiko tradizionalaren moldeak hautatu dutenak, nahiz eta gerra hizpide duten 1936-1957 bitarteko ohitura eleberrietan halako zantzen bat ikus daitekeen (*Loretxo*, *Ekaitzpean* edo *Laztantz* eta *Betargi* ditut gogoan). Patxi Zabaletaren *Badena dena da* nobela da azpigenor horren barruan bete-betean kokatzen den bakanetakoa.

Trilogia bateko bigarren alea da hau, eta, Beñat Mandazengaren fokua jarrita, narraizale orojakileak emango digu Nafarroako iragan hubilaren berri. Beñaten bidean egokitzen den pertsonaia bakoitzak bere istorioa du, nahiz eta bata bestearekin loturaren bat ageri duen beti, dela bakardadeak jotako pertsonaia direlako, antzeko egoeraren bat bizi izan dutelako, haurrak zirenean elkar ezagutu eta urte askotara berriro topatzen direlako, eta abar. Horrek guztiak, maitasun istorio, traizio, eta harreman sexualen deskribapen zehatzekin bat, irakurleak harapatzen du.


Eleberri historikoan ohikoa den bezala, iraganean jartzen da arreta, eta pasarte batzuk historiografia tradizionaletik gertu daude. Zabaletaren literaturak, gainera, badu beste berezitasun bat, eta horri izenburutik bertatik antzematen zaio, tarteka pasarte filosofiko luzeak txertatzen baititu istorioan. Batzuetan, ordea, erregistroa dela-eta, ez zaizkio behar bezala egokitzen, eta behartuxerak geratzen dira azalpen historiko eta

Badena dena da

PATXI ZABALETA

Txalaparta, 1995

Patxi Zabaleta Zabaleta idazlea
(Leitza, Nafarroa Garaia, 1947).



filosofiko horiek, eleberria fikzio literariotik urrunduz.

Haatik, eleberri honek formarekin guztiz asmatzen ez badu ere, ekarpen interesgarri batzuk egiten ditu: anarkista talde baten gorabeherak azaltzen ditu, haien arteko zenbait kontraesan-gogoeta agerian utziz (guztiak taldearen botere-kudeaketarekin lotuak), medikuntza-ikasketadun emakume bat jartzen da anarkisten lider (zeina, bidez batez, desiragarri izateaz gain, haren izena ere fonetikoki xamurra den, Loretxo eta Laztantzuren antzera: “– (...) Hize Oxo. Zeinen izen leuna, zeinen izen xarmanta (...)”, (327), frankisten bandoko tirabiren lekukotasuna ematen du (karlistak, faxistak eta falangistak), eta abar.

Liburu honetako osagaiek irakurle masa erakartzeko aukera dute, eta, hala, emakumeek gerran jasandako makurreriak oroitarazteko idazlearen asmo esplizitua bete dezake nobelak. ■

» DISKOA

Jauzi elektrikoa



Joxi Ubeda Goikoetxea

Mikel Urakenen aurreko diskoa *-Neguaren ostan*, 2015- oso ona da. Berak bakarrik grabatu zuen, bere ahotsarekin eta gitarrarekin. Baina lan berria modu berean egin baino, beste bi lagunekin auzolanean egitea erabaki du eta beste modu batean. Horrela, David Tobal bateria jotzailearekin eta Gorka Pardo baxu jotzailearekin -Sisha Pagma eta Hauts taldeetan aritutakoak dira, hurrenez hurren- erronkari aurre egin dio, eta asmatu egin du, ederra baita lanaren emaitza, zirraragarria.

Aurreko lanean, euskal folkaren sustraieetatik abiatuta, molde berri batzuk landu zituen Mikelek. Disko berrian jauzi bat aurrera egin du Daviden eta Gorkaren laguntzaz, jauzi elektriko bat, eta beste giro batzuk sortu dituzte, orain lasaiak eta leunak, orain biziak eta bortitzak, neurrian egindako marrazkiekin eta xehetasunekin ederki jantziak.

Oro har, kanta edo pieza luzeak dira, gure barruko hutsa, ahuldadea, ezintasuna, samina, beldurra eta bakardadea azaltzen dituztenak: "Gizakia naizela amets egin dut, amets, amets, gizakia bere hustasunean" (*Gizakia naizela*), "Mila hitz galdu, mila bizipen, josten goazen txatal zaharrak; bizi proiektu, amets erditze, heldu

Izaki bizidun berriak

MIKEL URAKEN

Autoekoizpena, 2018

*Mikel Uraken kantaria,
David Tobal bateria jotzailea
eta Gorka Pardo baxu
jotzailearen artean.*



gabeko une hutsalak" (*Instant bat*), "Badakigu besteen lekuari gure lekutik kantatzeak une batez baino ez digula azkura jabalduko; gero, berehala, berriz kantatu beharko diogula gure ezintasunari" (*Besteen lekuan*), "Arima husten ari da, hasi da oinazea, itota geratu da zor nitzun ixilunea" (*Ordu herdoilduak*).

Izaki bizidun berriak izenburuak berak azaltzen duenez, Mikel Uraken berri bat da, hiru buru dituen izaki berri bat. Kantuak Mikelek berak konposatu ditu -hitzak Gorka Erostarbek, Aiert Goenagak eta Gotzon Barandiaranek idatzi dituzte-, baina moldaketak hiru musikarien artean egin dituzte. Halaber, aipagarria da Ander Barriusok egin duen lana, soinu eta ekoizpen arduradun gisa.

Datozen egunetan jenduraren ariko dira Mikel, David eta Gorka, *Izaki bizidun berriak* aurkezten. Besteak beste, apirilaren 19an Bilboko Kafe Antzokian, maiatzaren 5ean Tolosako Bonberenean eta ekainaren 2an Laudioko Orbeiko Etxean. ■



Oroitzapenen xerka

LOW ROAR TALDEAREN KONTZERTUA

Atabal aretoak Miarritzeko Ozeanoaren Museoa urrian antolatutako kontzertua.



Andrea Zubozki

Hiru pertsona beltzez beztu, bakoitza mahai batekin bere aitzinean. Mahai gainetan, sintetizadoreak, sanplerrak, filtro makinak, eta beste. Gitarra elektrikoa giblean, baxua ondoan. Gitarra klasikoa bazter batean. Pad-ak ere, bateria eta beste soinu batzuk simulatzeko. Bakoitzak mikrofono bana.

Low Roar taldea ez da eskuak hutsik etorri Miarritzeko kontzertu honetara! Hainbat tresna, kable, makina... ongi, baina horrek arazo teknikoak ekartzen ahal ditu... Eta hala gertatzen da bigarren kantan! Gitarra elektrikoak "ez du funtzionatu nahi". Taldekide batek horrelako zerbait esaten digu ingelesez (ez dut erdia ulertzen). "Pedala gutxiago erabiliz, agian funtzionatuko zian" (ene baitan). Efektu pedal asko ditu gitarristak, baina funtzio berekoak; erreberberazioak, delayak, harmonizadore bat, distortsioak. Denak analogikoak, eta

trafikatzan ditu kanten artean, ez bada kantan berean.

Arazo tekniko horrengatik paniko txiki bat instalatzen da oholtzan. Hirugarren kantako sanplerra bota eta gero, momentu eder bat agertzen da; taldekideek, keinuen bidez, adosten dute bakoitzak zer egingen duen kantu horretan. "Zuk gitarra?" gitarra mimatuz, "nik bigarren boza" mikrofonoa erakutsiz eta bi eri altxatuz.

Rolak trukatzan dituzte, gitarran, baxuan, Padean, sintetizadorean. Low Roar taldeak ongi kalkulatu du zer egingen ahal duen sei esku eta hiru ahotsekin. Sanplerrak anitz erabiltzen dituzte, hala nola erritmo esaldiak igortzeko. Haien soinuak landuak dira, goxoak, eta beti egokiak momentuan ematen duten kantuari.

Low Roarrekoek, elektro-folk-pop-dance nahasketa (eta askoz gehiago)

eskaintzen digu. Haien kantuak beti ebidenteak dira. Ikaragarri ontsa eramanak. Iduritzen zait taldea ez ezagutu arren, abestiak hasi aurretik barnerratuak ditudala. Momentu horiek ederrak izaten dira.

Bainan gehien maitatzen dudan momentua, kontzertu erdian aurkitzen da; berriz ere, abesti berri batekin, lortu dute saltsa goraino iganarazten... eta hor, haustura egiten dute sanpler guztiak moztuz. Hutsune honetan, hiru ahotzen garbitasuna baizik ez da aditzen. Nahiko berezia da momentu hori: musikak flotatzen du airean, eta taldekideek oraina luzatzen dute, denbora elastikoa balitz bezala.

"Zenbat irauten du intenporalitateak?". Hamabost bat kantu eman eta gero, eszena uzten du Islandiar-estatu-batuar taldeak. Eta publikokoei oroitzapen anitz. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Maialen Lujanbiok 2015ean Donostian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*
Gaia: Jolastu liteke? Ez!

Ikastolako jolastokiak
behar gintun _____
baina askotan justizirik ta
_____ horrek eskas du.
Baldin bazera neskato edo
dohai fisikoz _____
herren bazabiltz edo ez bazera
lider txikiekin nahastu
baloi _____ maite ez duna
ezin liteke _____.

Beraz jabea bakarra da ta
berak nahi _____ bezela
antolatzen da jolastokia
ta antolatzen da _____.
Besteak dira bere meneko
ta bera da erregela.
Gizarte hontan gertatzen zaigu
jolastokian _____:
zeinek esan zun umek helduak
_____ dituztela?

Espazioa eta jokoa
_____ degu geureganatu
ta beste gisaz eta justiziz
gure erara _____.
Baloi jabe den agintariak
ez _____ gu manatu
baloia ostu beharko zaio
_____ eta besteontzat
edo bestela baloirik gabe
beste _____ bat asmatu.



Dani Blanco

U	T	R	A	H	Z	P	J	U	L	J	F	Z	U	O
S	V	N	Z	E	J	Z	A	S	P	V	A	S	C	F
B	U	E	S	N	S	J	A	L	L	S	S	O	B	U
E	J	U	J	J	E	D	B	U	E	N	J	M	U	T
Z	U	D	O	A	J	Z	U	P	O	G	L	M	U	S
E	S	B	U	B	F	T	V	I	S	H	G	T	A	
L	R	M	T	S	J	C	S	A	F	G	D	R	S	K
A	I	N	A	H	D	D	A	D	T	A	O	M	A	S
L	M	D	N	B	V	A	L	D	S	I	D	C	R	E
J	J	J	A	O	E	U	O	P	E	T	M	O	E	C
M	N	E	B	P	F	Z	J	U	N	Z	V	I	B	S
B	F	A	S	M	A	S	G	F	A	A	I	C	A	Z
E	J	S	O	P	I	A	I	N	H	L	V	B	A	J
E	J	A	B	E	A	K	G	R	I	A	J	O	K	U
M	B	Z	T	T	L	K	I	T	E	G	E	L	S	N
O	L	H	L	P	A	S	L	E	I	M	M	C	G	N

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

Ezker-eskuin:

1. Lauso. Kafetegia. 2. Nafarroako mendia (Irudian). 3. ...de Janeiro, Brasilgo hiria. Epaile baten erabakia. 4. Zur sendoko zuhaitza, lore zuri usaintsuak dituen. Aditza (laburdura). 5. Jainko grekoa. Itxaropen bizi. 6. Garraiabidea. Nafarroako herria. 7. Zikoitzak. 8. Betea. Leku.



Goitik behera:

1. Garaipena. 2. Gaixobera, gaixoti. 3. Sasoirra heldua. Ezen. 4. Ño, tori! Filmeak proiektatzeko tokia edo eraikina. 5. Teilatuaren piezak. 6. Mokadu, ahamen. Zinemako estralurtar famatua. 7. Bokal errepikatuta. Osasuntsu. 8. Trebeak, gaituak. 9. Edoskiarazi.

Sudokua

Erraza

5		4	7	1	9	2		
8	9	1			6		4	
2		3		5				
	3		5		8	6	1	2
6	5	8	4		1		3	
				9		8		6
	8		3			5	2	1
		5	6	8	2	3		4

Zaila

5				3	2			
	8						1	
	2	7		6				5
6		2		9	4			
		9				4		
			2	5		6		1
4				1		5	7	
	9						4	
			3	4				9

Ebazpenak

Ikastolako jolastokiak/behar gintun **askotan** justizirik ta **legetik** horrek eskas du./Baldin bazera neskato edo /dohai fisikoz **eskatu**/herren bazabiltz edo ez bazera/ lider txikiekin nahastu/baloi **jabea** maite ez duna /ezin liteke **jolatu**./Beraz jabea bakarra da ta/herak nahi **duen** bezela/ antolatzen da jolastokia /ta antolatzen da **gela**./Besteak dira bere meneko /ta bera da erregela./Gizarte hontan gertatzen zaigu/ jolastokian **bezela**./zeinek esan zun umek helduak **imitatzen** dituztela?./Espazioa eta jokoa **nahi** degu geureganatu /ta beste gisaz eta justiziz/ gure erara **banatu**./Baloi jabe den agintariak/ **ez gaitzala** gu manatu/baloia ostu beharko zaio /eta besteontzat **haru**/ edo bestela baloirik gabe/beste **joku** bat asmatu.

U	T	R	A	H	Z	P	J	U	L	J	F	Z	U	O
S	V	N	Z	E	J	Z	A	S	P	V	A	S	C	F
B	U	E	S	N	S	J	A	L	L	S	S	O	B	U
E	J	U	J	J	E	D	B	U	E	N	J	M	U	T
Z	U	D	O	A	J	Z	U	P	O	G	L	M	U	S
E	S	B	U	B	F	T	V	I	S	H	G	T	A	
L	R	M	T	S	J	C	S	A	F	G	D	R	S	K
A	I	N	A	H	D	D	A	D	T	A	O	M	A	S
L	M	D	N	B	V	A	L	D	S	I	D	C	R	E
J	J	J	A	O	E	U	O	P	E	T	M	O	E	C
M	N	E	B	P	F	Z	J	U	N	Z	V	I	B	S
B	F	A	S	M	A	S	G	F	A	A	I	C	A	Z
E	J	S	O	P	I	A	I	N	H	L	V	B	A	J
E	J	A	B	E	A	K	G	R	I	A	J	O	K	U
M	B	Z	T	T	L	K	I	T	E	G	E	L	S	N
O	L	H	L	P	A	S	L	E	I	M	M	C	G	N

6	8	1	6	1	3	3	3	3	2	7	5	5	5	8
2	7	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5
4	6	3	6	3	6	3	6	3	6	3	6	3	6	3
7	2	4	6	3	6	3	6	3	6	3	6	3	6	3
1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5
8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8
3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4
7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7

7	1	5	6	8	2	3	9	4
9	8	6	3	4	7	5	2	1
3	4	2	1	9	5	8	7	6
6	5	8	4	2	1	9	3	7
4	3	9	6	7	5	3	4	5
1	2	7	9	6	3	8	5	4
8	3	9	5	7	2	6	1	4
2	7	3	8	5	4	1	6	9
8	9	1	2	3	6	7	4	5
5	6	4	7	1	9	2	8	3

Erraza
Ebazpenak
Ezker-eskuin: 1. Geun, Kate, 2. Arnoitoa, 3. Rio, Epaia, 4. Akazia, Ad, 5. Io, Ilusio, 6. Trena, Aoz, 7. Zeikenak, 8. Asea, Told, 9. Garaizta, Goitik behera: 1. Garaizta, 2. Erkor, 3. Umoe, Eze, 4. No, 5. Teilik, 6. Kopau, 7. Aaa, Sano, 8. Iaiok, 9. Eradoski.

Leticia Dolera. Sororitatea aldarri



Bere burua “aktore, zuzendari, feminista eta zonbi-hiltzaile” definitzen du Leticia Dolerak (Bartzelona, 1981). Antzezle gisa ibilbide luzea egin ondotik, 2015ean zuzendu zuen bere lehendabiziko filma eta otsailaren hondarrean publikatu zuen *Morder la manzana* (Sagarra hozkatu), liburua.

“Feminismoa ez dago gizonezkoen kontra, baizik eta patriarkatuaren kontra”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Iraultza feminista

“Gizon eta emakumeon arteko desberdintasuna sistemikoa denez politikoa ere bada eta, beraz, aldatu daiteke. Artea arriskua da: proba eta hutsegitea da. Beraz, kultura ogibide dugunok bozgorailu bikaina dugu gauzak aldatzeko. Ezinbestekoa da emakumeok beldurra galdu, eta, gizartean merezi dugun tarte aldarrikatzeko legitimitatea sentitzea. *Morder la manzana* adibide argia da: amildegian behera bota nintzen feminismoaren aldarrikapenean eta sekulako erantzun positiboa eta babesa jaso dut”.

Noiz eta nola erabaki zenuen *Morder la manzana* liburua idaztea?

Feminismoarekin nuen konpromiso pertsonaletik jaio da *Morder la manzana*, prozesu natural baten ondorioz. Hein batean hondar ale bat jarri nahi nuen, gaurko gizartean hain beharrezkoa den mugimendu honetan.

Zein da liburu honen jomuga?

Feminismoaz asko irakurri dut azken urteetan. Pertsonalki, Nuria Varela, Ana de Miguel, Kate Millet edo Barbijaputaren liburuak ezinbestekoak izan zaizkit begiak ireki eta patriarkatuan nagusi diren genero desberdintasunaren arrakalak ulertzeko. Idazle horiek guztiek irakurle zehatz bat dute eta pentsatu nuen nik beste irakurle mota batengana iristeko aukera nuela. Azken finean, geroz eta ahots gehiago elkartu, orduan eta jende gehiagorengana iritsiko gara.

Liburuan sarri deitzen duzu gizonezko irakurleen arreta.

Noski, borroka hau euren ere bade-lako. Liburuak balio du batetik, femi-

nismoarekin lotura gehiegirik ez duten emakume askorentzat, azaltzen duten errealitateekin identifikatuta sentitu eta euren kontzientzia pizteko. Baina, bestalde, garrantzitsua iruditzen zitzaidan gizonezkoen interesa erakartzea, gure azalean jarri eta emakumezkoen intimitateetara gerturatzeko aukera emanez.

Zer deritzozu gizonezkoek feminismoan duten partaidetza?

Baikorra naiz. Uste dut arazoa sarri izaten dela feminismoaren mamia ez ulertzea. Matxismoak feminismoa galarazi nahi izan du azken hamarkadetan, feminismoa gizonezkoekin haserre dauden emakumeen borroka gisa marraztuta. Horregatik kontzeptua argitu beharra dago: feminismoa ez dago gizonezkoen kontra, baizik eta patriarkatuaren kontra.

Aurtengo zinema jaialdietan tarte hartu du feminismoak. Zein da hemendik aurrera erronka?

Zinemagintzak bakarrik ez, kulturak aitzindaria izan behar du gizarte alda-



"Beldurrarekin ez gara inora iritsiko, gizartean merezi dugun tartea aldarrikatzeko garaia iritsi da".

ketetan. Ezinbestekoa da kontakizun anitzagoa eraikitzea eta, horretarako, funtsezkoa da kameraren atzean begirada gehiago sustatzea, tartean emakumeon: gizartearen erdia bagara, adimenaren eta irudimenaren erdia ere bagarelako da. Kontakizun kulturala aberastea da hurrengo urratsa.

Eraso sexisten kontrako borrokaren ikurra bilakatu zara, beste hainbat aktore bezala. Zerbaitetan aurreratu al dugu?

Hollywoodeko indar mediatikoari esker, bortxaketen isiltasunaren kultura hausten hasi gara. Hori urrats garrantzitsua da, isiltzen dena ez baitago eguneroko agendan. Orain ikusi beharko da zer egingen dugun hemendik aurrera. Izan ere, biktimen sinesgarritasun ezak indar gehiegi du gaur gaurkoz.

Salaketa ez da sekula erabaki erraza. Behar al da protokolo berririk?

Zalantzarik gabe. Ni ez naiz honetan aditua, baina, funtsezkoa da biktimek halako gertakariak salatzen dituztenean duten zaurgarritasunarekin amaitzea.

Izan ere, oso zaila da zure nagusia salatzea, are gehiago emakumea bazara.

Zinemagintzak elikatzen al ditu patriarkatuaren rolak?

Ohikoa da profil zehatz bateko emakumeak bilatzea: ederrak eta sexiak. Gurean, gainontzeko ogibideetan bezala, patriarkatuan nagusi diren patroik berak errepikatzen dira. Zoritxarrez, lan elkarrizketa batera doan emakumeak puntu gehiago izango ditu nagusiaren erabakian, erakarpena badago.

Nola aldatu daitezke patroik horiek?

Kultura eta komunikabideen bitartez. Ohikoa da hedabideetan agertzen diren pertsonaia publikoen artean gizonetzkoak ile-zuridunak, zaharrak eta zimurdunak izatea. Emakumezkoek, aldiz, beti izan behar dute ederrak eta gazteak. Kontakizun honen bitartez hedabideek helarazten duten mezua da emakumea eta boterea uztartzeko, edertasuna ezinbestekoa dela. Komunikabideen papera ezinbestekoa da. Eta berdin gertatzen da kulturarekin.

Eta hezkuntzak zein toki du guzti honetan?

Noski, hori ere ezinbestekoa da. Kontuan hartu behar da DBHko liburuetan agertzen diren pertsonaien %7,5a bakarrik direla emakumeak. Gaztetxoak garenetik dugu rolen banaketaren presioa, eta horrek gure autoestimua zigortzen du. Erreferenteak lapurtu dizkigute eta, ondorioz, bidea irekitzea zailagoa zaigu.

Sarri pertsonaia publikoek beldurra izaten dute zurea bezalako aldarrikapenetan murgiltzeko. Zuk izan al duzu beldurrik?

[Isiltasuna] Uste dut marra gorria dagoeneko zeharkatu dudala... [irriak] Besterik gabe, nire ogibideak eman didan bozgorailua erabiltzen ari naiz feminismoa bezalako aldarrikapen justu baten alde. Beraz, zintzoki, ez dut orain arte ondorioetan pentsatu. Nik daki-danagatik, kulturaren murgilduta gaudenok adierazpen askatasuna defendatzen dugu eta, beraz, baita askatasun ideologikoa ere. Beldurrarekin ez gara inora iritsiko, gizartean merezi dugun tartea aldarrikatzeko garaia iritsi da. ■



Funtzionario postua lortu nahi duten pertsonen kopuruak biztanleria osoarena gainditu du lehen aldiz

Euskal Herrian funtzionario izan nahi dutenak gehiago dira jada Euskal Herriko biztanle guztiak baino. Datu horren berri eman dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskal Elkargoak eskaini duten prentsaurreko bateratuan. Postu publikoak lortzeko probak gogortu egingo dituztela aurreratu dute, eskari altuak ikusita: “Bardeetako basamortuan janaririk eta urik

gabe utziko ditugu hautagaiak eta bi hilabeteren buruan bizirik jarraitzen dutenen artean hil arteko borroka saioak antolatuko ditugu”. Eskainiko diren plaza publiko gutxiei egokitutako prozedura dela azpimarratu dute. “Bi problema konponduko ditugu aldi berean: funtzionario berriak lortu, eta sistema publikotik txupatzen duten alfer sorta bat hil”.

SAREAN ARRANTZATUA

S-pain



Etxeko animaliak ezin dira kartelgile sartu



Ehiztariek argi daukate: “Animalia entzun, pim, pam, pum!”

“Ez, ez, ez, ehizak ez du barkatuko”, “Zuek, animalistak, zarete terroristak”, “Oreina bipil, jo ta bertan hil”, oihuak entzun ziren igandean Donostia, Bilbo eta Iruñean. Harri Arotik datorkigun ohitura bat babes-tera kalera atera ziren euskal ehiztariak Espainiako Federazioak aginduta: animaliak tiroz hiltzea. “Zezenketarik ez balego zezenik existituko ez litzatekeen bezala,

ehizarik gabe ez legoke hegazti, basurde edota animalista kalekume podemitarik”, adierazi zuen manifestazioaren amaieran VOXeko boto-emaila ematen ez duen ehiztari bakarrak. Oreka bermatzen egiten duten lan eskerga azpimarratu zuen segidan: “Manifestazioa egin bitartean, kideek akabatu dituzten 23 kaio eta 137 usoak gizarteari egindako ekarpena izan dira”.





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com